

# 2

## Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien V. edizioko  
BIGARREN JARIA (2012)

**Xabier Bengoetxea Muxika**

*Irakaslea. Hizkuntza Normalkuntza Teknikaria*

euskara@oriapat.net

Sarrera-data: 2012-11-15 / Onartze-data: 2012-12-17

**Laburpena.** Hizkuntza indarberitzeko, arnasguneek duten garrantzia azpimarratu dute autore askok; Fishmani jarraituz, Mikel Zalbidek bereziki. Baina, zein egoeratan daude egun euskal arnasgune horiek? Zein joera eta norabide gertatzen ari dira arnasgune horietan? Euskararen erabilera sendotzen ala ahultzen ari da? Honelako galderei erantzun nahi die lan honek. Horretarako, lau herri, lau arnasgune, aztertu ditu egileak: datu demolinguistikoak arakatuz, ikasleen erabilera eta kultura-kontsumoa ikertuz eta herriko beste atal batzuei behatuz, besteak beste. • *Hitz-gakoak: arnasgunea, biziberritzea, diglosia, kultura-kontsumoa.*

**Abstract.** The importance of breathing spaces in the language revitalisation process has been underscored by many authors, including Fishman and, more particularly, Mikel Zalbide. But what is the current situation of these breathing spaces for the Basque language? What are the trends and tendencies that can be found in them today? Is Basque language use growing or shrinking? This work aims to provide some answers to these questions. To this end, the author analyses four places, four breathing spaces, looking at the demo-linguistic data and examining use among students and cultural consumption, as well as a number of other local aspects. • *Key words: breathing space, revitalisation, diglossia, cultural consumption.*

## SARRERA<sup>1</sup>

Azken urteetan arnasguneetan<sup>2</sup> gertatzen ari diren aldaketen aurrean kezka areagotu egin da. Irakasleen arteko zenbait mintegitan, bereziki herri euskaldun horietakoengan, behin eta berriz aztergai izan den gaia da. Hausnarketa horietan du abiapuntua lan honek. Hausnarketarako marko teorikoa Mikel Zalbiderengandik<sup>3</sup> hartu genuen. Haren artikulak, adibideak eta irizpideak funtsezkoak dira intuizioz suma zitezkeenei sostengu teoriko-zientifikoa emateko. Berak definitu ditu arnasguneen izaera eta ezaugarriak, hala nola horietan gertatzen ari diren —eta gerta daitezkeen— aldaketak zergatik gertatzen diren. M. Zalbideren lana izango dut, beraz, oinarri eta erreferentzia. Horretan oinarriturik, eta horren argitan, lau herritako egoera aztertzen ahaleginduko naiz, hainbat datu konparatuz eta horien interpretazioa eginez eta hipotesiak botaz. Lan honen xedea xumea da: arnasgune diren lau herritako behaketa egitea. Herri horietan zer-nolako aldaketak gertatzen ari diren, aldaketarik gertatzen ari bada behintzat, ikustea eta aldaketa horien nondik norakoen zergatiak argitzen saiatzea, beti ere, lehen esan bezala, arnasguneen teorizazioaren argitan.

Lanak, beraz, bi zati nagusi izango ditu. Lehenik, arnasguneen izaera, beraien ezaugarriak eta horietan aldaketak zergatik eta nola gerta daitezkeen ikusiko dugu. Esan bezala, M. Zalbidek arnasguneei buruz idatzitako artikulua batean oinarrituta. Oso labur eta eskematikoki ekarria bestalde, gerora ikusiko eta aztertuko ditugun datuak interpretatzeko argigarri izango zaizkigun neurrian.

Bigarrenean, Tolosaldeko arnasgune batzuen azterketatxo bat egingo dut. Hasieran orokorra egingo badut ere, gerora, horietako lau herri hartu eta horiek sakonago aztertzen saiatuko naiz. Zein egoeratan dauden, nolatan islatzen diren herri horietan aurrez ikusitako ezaugarriak (teorikoak), aldaketarik gertatzen ari ote den, norantz ote doazen aldaketa horiek, etab.<sup>4</sup>

Lan honetako hipotesiak honakoak dira:

— Arnasguneak direla eta, Mikel Zalbidek horiek definitzean aipatzen dituen aldagaiak, ezaugarriak, aldaketak eta horien zergatiak, nahiko ondo egokitu, islatu, daitezkeela aztertu ditudan arnasguneetan.

— Arnasgune horietan gertatzen ari diren aldaketak sakonak direla, nahiz eta lehen gainbegiradan aldakortasun hori ez den begi-bistako egiten.

— Kultura-kontsumoak argi adierazten duela aldaketa horien norabidea. Halaber, kultura-kontsumo horren azterketak, gertatzen

---

**Hausnarketarako  
marko teorikoa  
Mikel  
Zalbiderengandik  
hartu genuen.  
Haren  
artikuluak,  
adibideak eta  
irizpideak  
funtsezkoak dira  
intuizioz suma  
zitezkeenei  
sostengu teoriko-  
zientifikoa  
emateko.**

**Tolosaldeko arnasgune batzuen azterketatxo bat egingo dut. Hasieran orokorra egingo badut ere, gerora, horietako lau herri hartu eta horiek sakonago aztertzen saiatuko naiz.**

ari den beste zenbait aldaketaren interpretaziorako elementuak eman diezazkigukeela.

## **LANA BIDERATZEKO EGINDAKO URRATSEN ZEHAZTASUN BATZUK**

Lehen ataleko datu demolinguitikoak eta soziolinguitikoak EUSTA-Tetik hartu ditut. Datu horietan oinarrituta atera dira portzentajeak eta horiek dira grafikoetara eraman direnak. Lehenik 12 herri txiki/arnasguneren datuak aztertu dira. Gero, lau herri zehatzago aztertu ditugu.

Aztergai hartutako lau herri horietako eskoletan, erabakitako maila jakin batzuetan, gela-argazkiak egin dira. Lehen Hezkuntzako hiru eskolatan (Asteasu, Berastegi eta Amezketeta) 4., 5. eta 6. mailetan egin dira gela-argazkiak. Guztira, 10 gelatan. Horrez gain, DBHko ikastetxe batean (Aralar DBH. Alegia) DBHko 2. eta 4. mailetan egin da gela-argazkia. Guztira, 4 gelatan. Maila bakoitzeko 2 gelatan. Orotara, beraz, 14 gelatan egin da gela-argazkia. Hiru herritan 4., 5. eta 6. mailetan eta arnasgune bateko institutuko 2. eta 4. mailako ikasleei. Horrela, herri diferenteak hartuta batetik, eta adin ezberdineko ikasleak bestetik, erkaketarako eta azterketarako bide eman nahi dugu.

Hautatutako ikasle horien kultura-kontsumoa ezagutzeko, galdeketa bat pasatu da. Aurreko atalean aipatu ditugun 14 geletan ikasle guztiei pasatu zaie galdeketa. Hots, Lehen Hezkuntzako 124 ikasleri eta DBHko 70 ikasleri. Guztira, 194 ikasleri pasatu zaie beraien kultura-kontsumoari buruzko galdeketa. Galdeketa hori 2011ko maiatzean pasatu zitzaien.

Eskoletako datuez gain, herriko beste hainbat ataletako datuak jaso dira.

### **1. ZER DIRA ARNASGUNEAK?**

Arnasguneei garrantzia ematen ari bagatzaizkie, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko duten garrantziaz jabetzen garelako da. Geurea, euskara, ahuldutako hizkuntza da. Ahuldade hori, begi-bistakoa da, ez da lurralde guztian modu berean eta intentsitate berarekin gertatzen. Leku batzuetan, oso ahul dago, beste batzuetan osasuntsuago eta hainbatetan (arnasgunetan), lehen begiradan behintzat, aski osasun onean dagoela esan genezake. Hori bai, gorputz-atal guztiak elkarlotuta eta elkarreaginean dauden bezala, han-hemengo hiztun-taldeak euskararen hiztun-elkartea osatzen duela esan genezake, horiek ere elkarlotuta eta elkarreaginean. Eta zati baten osasun-ahuldadeak, baduela zerikusia gorputz-elkarte osoaren osasun-ahuldadean. Gogoratu, bestela, Mikel

Laboak abesten zuen kanta hura: *Batek gosez diraeino ez gara gu asetuko; bat inon loturik deino ez gara libre izango...*

Ahuldutako hizkuntza duen gizarteaz ari gara, beraz (Zalbide, 2002). Beste zenbait hizkuntzarekin ukipen-egoeran dagoenez, horren eraginez dago ahulduta. Ahuldade horren sintomak dira interferentziak, kode-alternantziak, hiztun gutxi izatea, harreman-sare ahulduak, ez oso trinkoak, jardun-esparru eta egoera hainbatetan oso leku txikia izatea, orain arte nahiko sendo agertzen ziren situazio informal intimoetan ere ahultzen joatea, konpartimentazio soziofuntzioanal egonkorrik gabe geratzeko bidean joatea, etab.

Esan bezala, *Albo-erdarekin ukipen-egoeran* dago euskara, eta *diglosiarik*<sup>5</sup> gabe gelditzen ari da ia. Hizkuntza-ukipenaren ondorioek hiru planotan dute eragina: linguistikoan, norbanakoan eta gizartean.

**Plano linguistikoan:** *hiztunek (batez ere hizkuntza kontestualki ahuleko hiztun elebidunek) darabilten hizkeran eta idazkeran interferentziak agertzen dira (hots-ebakeran, morfosintaxian, hitz-altxorrean eta semantika arloan). Kode-alternantzia eta hibridazioa ere agertzen dira.*

**Norbanakoaren planoan,** *berriz, elebitasuna agertzen da (normalean A-n edo B-n, ez bietan; eta ez, normalean, bietan maila berean): L1-n eta L2-n hizkuntza-gaitasun diferentziala dute hiztun elebidun horiek eta, horren ondorioz, era askotako nagusitasun-moldaerak (dominance configuration) agertzen dira: euskal/erdal elebidunak, besteak beste.*

**Gizarte-mailan,** *hizkuntza biak erabiltzen dira. Horren ondorioz, maila makrosoziolinguistikoan mintzaerari eustea gerta liteke (language maintenance), edota mintzaldatzea (language shift). Baita hizkuntza-hedapena (language spread) edota, atzera eraginez, ahuldutako hizkuntza indarberritzea ere (HINBE edo Reversing Language Shift). (Zalbide, 2008)*

Gizarte-mailako ondorioetako bat mintzaldaketa<sup>6</sup> da. Ahultzen doan hizkuntza duen gizartean gertatzen da mintzaldaketa. Mintzaldaketa ez da besterik gabe gertatzen, motibo sozial jakinak ditu, aurrerago ikusiko dugunez.

Gizarte batek, hizkuntza bi edo gehiago ukipenean dituenean, norabide bat baino gehiago har dezake: mintzaldaketaren prozesu baten bidez hizkuntza ordezkapeneko bidean abiatzea edota ahuldutako hizkuntza indarberritzea (HINBE).

Horrela, bada, ahuldutako hizkuntzaren gizartea indarberritzeko tenore horretan du erabateko garrantzia arnasguneak zaintzeak eta indartzeak. (Euskararen Aholku Batzordea, 2009).

---

**14 gelatan egin da gela-argazkia. Hiru herritan 4., 5. eta 6. mailetan eta arnasgune bateko institutuko 2. eta 4. mailako ikasleei. Horrela, herri diferentek hartuta batetik, eta adin ezberdineko ikasleak bestetik, erkaketarako eta azterketarako bide eman nahi dugu.**

**Ahuldutako  
hizkuntza duen  
gizarteaz ari  
gara, beraz. Beste  
zenbait  
hizkuntzarekin  
ukipen-egoeran  
dagoenez, horren  
eraginez dago  
ahulduta.  
Ahuldade horren  
sintomak dira  
interferentziak,  
kode-  
alternantziak,  
hiztun gutxi  
izatea,  
harreman-sare  
ahulduak, ez oso  
trinkoak, jardun-  
esparru eta  
egoera  
hainbatetan oso  
leku txikia  
izatea, orain arte  
nahiko sendo  
agertzen ziren  
situazio informal  
intimoetan ere  
ahultzen joatea,  
konpartimentazio  
soziofuntzioanal  
egonkorrik gabe  
geratzeko bidean  
joatea, etab.**

Baina, zer dira arnasguneak? Zein ezaugarri dituzte?

M. Zalbideren hitzetan:

*Zer da arnasgunea? Fishman-ek physical breathing space esaten duena. Hots, demographically concentrated space where Xish (gurean euskara) can be on its own turf, predominant and unharassed (1991: 58). Euskaraz nolabait esateko, demografia aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe “etxeko jaun” sentitzen den eremua. Hori da, funtsaren funtsean, Fishman-en physical breathing space edo arnasgunea.*

*Euskaldunak euskaldunekin euskal giro sendoan bizi diren lekuetan, gurasoen hizkuntza belaunez belaun eskuratzen den lekuetan, hizkuntza-plangintzarik eta inolako interbentzio berezi (zenbaitentzat “xelebre”)-rik gabe diharduten ingurumenetan, horietan dago euskara bizien. Hor du euskarak osasunik hoberena. Hori da euskal arnasgune petoa, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa bere betean (beste leku gehienetan baino askoz nabarmenago) segurtatzen duena.*

*Aparteko antolamendurik gabe ikasten dute horietan haur txikiek bertako hizkuntzan. Hala ikasten dute hitz egiten. Lehenik hitz egiten eta gero, eskola eta abar lagun, irakurtzen, idazten eta bertan ahoz aho dabilen hizkuntza horren errejistro eta aldaera jaso, landu, formalizatuagoak erabiltzean. Hori da osasun oneko hizkuntzen belaunez belauneko jarraipen-bide normala, prototipikoa. Hori izan da euskararen mendez mendeko transmisio-bide nagusia ere, lehen zatiari (etxeko eta auzoko hizkera bizia eskuratzeko bideari) dagokionez. Bigarrenean (errejistro formaleko, bereziki idatzizko lanketan eta garapenean) arras eskas eta ibili gara, ongi ezaguna denez.*

*Lehentasuna dute, horregatik, hizkuntzari bizirik eutsi nahi bazaio eta indarberritu egin nahi bada. Horiek dira, Fishman-en eta beste zenbaiten ustean, hizkuntza indarberritzeko saioaren abiaburu natural eta baliagarriak. Hori gabeko normalkuntza ez da normalkuntza. Ingurumen horien zaintza-ardura bigarren edo hirugarren lehentasun-mailara daramana ere ez. (Zalbide, 2008: 7-9)*

Lehen esan dugu mintzaldaketa ez dela zoriz ematen, baizik eta motibo sozial jakinak dituela. Hori horrela da arnasguneetan ere. Aipa ditzagun zein diren mintzaldaketa bultzatzen duten motibo horiek. Honakoak dira M. Zalbidek aipatzen dituenak:

### **1. Hizkuntza ahula erabiltzeko (are, defendatzeko) debekua**

*Demagun, eskola-munduari dagokionez, XVIII. eta XIX. mendeetako eraz-*

tun-metodo zigorbidezkoa, edota 1902-03ko arauzko debeku zorrotzak. Debeku-kontua ez da eskola-munduan bakarrik aplikatu izan: beste zenbait jardun-esparrutan ere bada debeku-politikaren adibide mingarririk.

## 2. Hizkuntza ahula fisikoki eten-urratzea (dislokazio fisikoa)

Gosetea, katastrofe naturalak eta norbaitek (beste herri batek edo beste pertsona batzuek) eragindako txikizioak (gerrak eta gerraondokoak, genozidioak, “scorched earth” edo “tierra quemada”-ko inbasio-politikak, mehatze-eta oihan-esplotazio neurrigabeak eta, berrikitanago, airea, ura, lurra, fruitu-landareak, animaliak eta are gizakiak berak pozointzeak...).

## 3. Dislokazio demografikoa

A hiztun-elkartea (edo bertako  $A_i$  hiztun-taldea) dentsitatez eta kontzentrazioz nabarmen ahultzea. Hiztun horien kontzentrazioa nabarmen ahultzea eta, horren ondorioz, A hizkuntzako hiztunek A hizkuntzako beste hiztunekin eguneroko jardunean beren A hizkuntza horretan egiteko aukera edota beharra nabarmen gutxitzea. Hiru prozedura nagusik eragin ohi du gogorrenik dislokazio demografikoan: emigrazioak, immigrazioak eta jaiotze-kopuruen gainbeherak.

Motibo nagusiak horiek izanik ere, dislokazio demografikoa ez da, berez, hiru prozedura horietara (emigrazioa, immigrazioa, haur gutxi sortzera) mugatzen. Prozedura horiezaz gainera, bada laugarren dislokazio-iturri bat ere, oso kontuan hartzekoa: urbanizazioa. Ondorio demografiko sakonak izan ohi ditu, askotan, urbanizazioak. Ordura arte baserri-giroan bizi izandako populazioa (baserritar-jendea) urbanizatzen denean (bizi izatera “kalera jaisten” denean), bizilekuz aldatze horrek ondorio nabarmenak izan ohi ditu bere bizimoduan. Bera ez bezalako jendearekin bizi behar izaten du handik aurrera: askotan, beste hizkuntza batean egiten duen (eta hartan egitera behartzen duen) jendearekin. Eten eta urratu egiten dira, hainbatetan, ordura arteko bere ohiturak: egunero-egunero “bere hizkuntzan” egiteko ohitura, besteak beste.

## 4. Urbanizazioa, lurralde-antolamendua eta dislokazio soziokulturala

Ez da hori, jakina, urbanizazioak berekin ekarri ohi duen eten-urratze bakarra. Dislokazio soziokultural sakona ekarri ohi du sarri, dislokazio demografikoaz gainera, bizi izatera baserritik kalera jaiste horrek. Dislokazio soziokultural hori bizimodu arruntaren alor gehienetan gertatzen da gutxi-asko: lanbidean, eguna eta astea partitzeko moduan, jan-edanean, jantzeko moduan, astialdiko jolas-bideetan, hainbat uste-sinesmenetan, jakite kontuan eta, oro har, mundu-ikuskera osoan. Mundu-ikuskera osoan eta, askotan, eguneroko berbetan, eguneroko hizkeran. Beretzat ordura arte arrotzak ziren jende-moduekin tratatu behar izaten du aurrerantzean, ba-

**Euskaldunak euskaldunekin euskal giro sendoan bizi diren lekuetan, gurasoen hizkuntza belaunez belaun eskuratzen den lekuetan, hizkuntza-plangintzarik eta inolako interbentzio berezi (zenbaitentzat “xelebre”)-rik gabe diharduten ingurumenetan, horietan dago euskara bizien. Hor du euskarak osasunik hoberena. Hori da euskal arnasgune petoa, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa bere betean (beste leku gehienetan baino askoz nabarmenago) segurtatzen duena.**



**Dislokazio demografikoa ez da, berez, hiru prozedura horietara (emigraziora, immigraziora, haur gutxi sortzera) mugatzen. Prozedura horiezaz gainera, bada laugarren dislokazio-iturri bat ere, oso kontuan hartzekoa: urbanizazioa. Ondorio demografiko sakonak izan ohi ditu, askotan, urbanizazioak.**

tean ez bada bestean, kalera aldatu den baserritarrak: bere auzo berrian, lanean, eskolan, erosketak egiterakoan, garraio-bideetan, entretenimendu berrietan eta zeremonia publikoetan. Horrekin batera, lehen baino komunikazio trinkoagoa, ugariagoa izango du (baserrian jende gutxiago zuen hitz egiteko, ia beti solaskide berberak, eta zertaz hitz egina ere mugatuagoa zuen). Horrek guztiak, azken buruan, ondorio jakina dakar: herri-jakin-tzaren baitako, eta bere ordura arteko hizkuntzan sortutako, mezuen eten-gabeko gutxitzea eta ahultzea.

#### **5. Dislokazio soziala: giza arteko eten-urratzea**

Gizarte (berri)aren ordainsari-sisteman hiztun-talde horretako kideak gero eta beste hizkuntzaren beharrago gertatzea. A hizkuntzako hiztunak, gizartean aurrera egingo badu, B hizkuntza ondo jakin beharra eta, hainbat jardun-esparru eta hainbat harreman-saretan, ezinbestean B hizkuntzan jardun beharra.

#### **6. Dislokazio kulturala**

Gizarte molde berriak eragindako lehen ez bezalako bizimoduak eta, oro har, modernizazioak berekin dakartzan berrikuntzak B hizkuntzaren indargarri eta A hizkuntzaren galgarri gertatzea. (Zalbide, 2008: 2-5)

Ikus ditzagun, azkenik, arnasguneen oraingo egoeran M. Zalbidek aipatzen dituen zenbait ezaugarri:

- Gazte euskaldunen emigrazioa
- Immigrazioaren goraldi berria
- Bilakaera ekonoteknikoa
- Bilakaera soziokulturala
- Familiak eta ingurumen hurbilak lehen baino babes-indar ahulagoa.
- Lurralde-antolamenduaren bilakaera
- Bide-sare berritua
- Hiriak gainezka egin du eta kanpora irten da.
- Industriaren kokaera berria
- Harreman-sare berriak (Zalbide, 2008: 17-21)

Honaino arnasguneen kokapena eta ezaugarriei buruzko aipamen laburra. Atal bakoitza zehatzago eta sakonago landu beharko litzateke, baina biderik motzena eta zuzenena Mikel Zalbideren artikulu horiek (biografian aipatzen ditudanak) irakurtzea da. Hemen, horren laburpen xume bat besterik ez dut egin, gerora aztertuko ditugun aldagaien argigarri. Edozein modutan, hemen aipagai izan dugun elementu asko adibide zehatz horiek aztertzerakoan ere azalduko zaizkigu.

Bukatzeko, laburbilduz, aipa ditzagun arnasguneen ezaugarri behinenak. Zer dute euskal arnasguneek nabarmen?

- a) Espazioa, lekua da, non euskaldunen kontzentrazio demografikoa, euskaldunen dentsitatea, handia den. Espazio, herri, eskualde edo dena delako espazio horretan, euskaldunak gehiengo dira eta elkarren ondoan bizi dira, eta harreman-sare euskaldunak eratzen dituzte.
- b) Bertako biztanleen hizkuntza arrunta, eguneroko jarduera gehien oinarri eta adierazbidea, euskara da.
- c) Euskara eta berari datzekion etnokulturaren transmisioa indarrean dago, naturaltasunez, ezer berezirik egin gabe, belaunez belaun transmititzen da.
- d) Hizkuntza-komunitate trinkoa da arnasgunea. Etxean ikasitako hizkuntza horren indargarri dira, arnasguneetan, kalea, lagunartea, auzoa... Herri-giro osoa da euskararen erabilerarako pizgarri.
- e) Arnasgunea ez da kontzeptu estatiko bat. Dinamikoa da. Etengabe aldatzen doan errealitatea da. Bertako bizi-moldean eragiten duten faktore batzuk indargarri izan daitezkeen bezala, beste hainbatek arnasgune horietako hizkuntza-bizitasuna ahultzea edota galbidean jartzea ekar dezakete. "Hizkuntza-bizitasuna" diogunean honako hau dugu gogoan: espazio fisiko jakin batean bizirik dagoela hizkuntza, eguneroko adieraz behar nagusietan; batez ere, ahozko jardueran, espazio fisiko horretako hiztunen artean. Norabide bakoitzean eragiten duten faktoreak sakonki aztertzea funtsezkoa da, horietan eragin nahi bada.

## 2. ARNASGUNE ZEHATZ BATZUEN BEHAKETA

Zertan dira gure arnasguneak? Lehen atalean aipatutako aldagaietatik zeintzuk nabarmentzen dira gure arnasgune horietan? Noraino betetzen ari dira aztergai izan ditugun dislokazioak? M. Zalbidek egungo egoeran ikusten dituen arnasguneetako ezaugarriak noraino islatzen dira herrietan?

Horiek eta antzeko galderak dira lau herri (arnasgune) aztertu ondoren erantzuten saiatuko garenak, eta ondorioak ateratzeko baliatuko ditugunak.

Lehenik, Tolosaldeko eta Goierriko hamabi herri euskaldunen datuak aztertuko ditugu hizkuntzari dagokionez. Hauek dira aztertutako herriak: Aduna, Albiztur, Alkiza, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Bidegoian,

---

**Euskara eta berari datzekion etnokulturaren transmisioa indarrean dago, naturaltasunez, ezer berezirik egin gabe, belaunez belaun transmititzen da.**




**Arnasgunea ez da kontzeptu estatiko bat. Dinamikoa da. Etengabe aldatzen doan errealitatea da. Bertako bizimoldean eragiten duten faktore batzuk indargarri izan daitezkeen bezala, beste hainbatek arnagune horietako hizkuntza-bizitasuna ahultzea edota galbidean jartzea ekar dezakete.**

Errezil, Gabiria, Ikaztegieta, Lizartza eta Zerain. Datu horiek EUSTATetik hartuak dira. Datu horiek 2006. urte artekoak dira, handik aurrerako daturik ez dagoelako hizkuntzaren aldagaiei dagokienez EUSTATEko datu-basean. Edozein modutan, joerak ikusteko baliagarri direla deritzot. Azken urteetan joera hori areagotu egin den susmoa daukat, bestalde. Horrez gain, aipatu hizkuntza-datuak 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren datuak dira. Hor egon daiteke alderatze txiki bat, baina joeretan ez du eragin nabarmenik eta, kasu honetan, joerak gehiago interesatzen zaizkigu, datuen pilaketa zehatza baino.

Hamabi herri horietako datu demolinguistikoak banan-banan aztertu eta grafikoetara ekarriak baditugu ere, hona, hamabien batez bestekoen datuak eta grafikoak bakarrik ekarriko ditugu<sup>7</sup>.


## 2.1 Hamabi herritako datuak. Batez bestekoak

1. Irudia. 12 herritako datuak. Batez bestekoak (%)




Iturria: Eustat

2. Irudia. 12 herritako datuak. Ama-hizkuntza. Batez bestekoak (%)



Iturria: Eustat

3. Irudia. 12 herritako datuak. Etxeko hizkuntza. Batez bestekoak (%)



Iturria: Eustat

**Biztanleei dagokienez nahiko herri txikiak dira: 300 eta 1500 biztanle artekoak.**

**1981etik aurrera, kasu askotan, biztanleak galtzen joan dira, apal eta ozta-ozta bada ere. Jaiotze-tasaren jaitsierak eta gazteen emigrazioak zerikusia izan du, besteak beste.**

**Norabide hori 2001ean, eta, bereziki, 2006an hasi da aldatzen. Hau da, biztanle berriak irabazten hasi dira, biztanle kopurua gora joan da kasu gehienetan edota egonkortzera egin du.**

### 3. DATUEN IRAKURKETA ETA ONDORIOAK

#### I 3.1 Biztanleria

Biztanleei dagokienez nahiko herri txikiak dira: 300 eta 1500 biztanle artekoak. Aztergai ditugun herri gehienek antzeko bilakaera izan dute. Biztanle kopurua gorabehera, Gausen kanpai irauliak irudikatuko luke hobekien. Erdialdean erriago, bi ertzetan gorago. Hori bai, aski parabola laua du kanpai irauli horrek. Hau da, herri horietako gehienetan, 1981etik aurrera, kasu askotan lehendik zetorren biderei jarraituz, biztanleak beheraka joan dira, biztanleak galtzen joan dira, apal eta ozta-ozta bada ere. Jaiotze-tasaren jaitsierak eta gazteen emigrazioak zerikusia izan du, besteak beste. Hogei bat urtez, oro har, herri horiek txikitzen joan dira, biztanleak galtzen. Norabide hori 2001ean, eta, bereziki, 2006an hasi da aldatzen. Hau da, biztanle berriak irabazten hasi dira, biztanle kopurua gora joan da kasu gehienetan edota egonkortzera egin du. Igoera hori ez da kasu guztietan modu berean gertatu. Kasu bakaretan, hazkundera nahiko azkarra eta handia izan da, beste batzuetan oso apala eta txikia. Hazkunde horren aldagaiak begiratzekoan, kon-tuan hartzekoak dira, batik bat, migrazio-saldoak eta urbanizazioa.

Biztanlerian izan diren aldaketak horiek ez dira kopuru absolutuz oso handiak, kasu gehienetan nahiko herri txikiak baitira. Hala ere, por-tzentualki esanguratsuak dira eta eragina dute ordura arteko bizi-giroan. Halaber, eragina dute herri horietako ezaugarri soziolinguistikoetan.

#### 3.2 Ezaugarri demolinguistikoak eta soziolinguistikoak bilakaera

— Euskaldunen dentsitatea nahiko handia da: 2006ko datuen arabera %83ren bueltan dabil. Edozein modutan azpimarratzeko da duela 15 urte (1991) %92,5ekoa zela. Beraz, 15 urtetan %10 egin du behera euskaldunen dentsitateak. Noski, herrien artean aldeak daude. Joera beheranzkoa da denetan. Oso adierazgarria da euskaldunen den-tsitatea biztanleen datuekin erkatuz ikus genezakeena. Neurri ba-tean, Gausen kanpaia ispilu gisa ateratzen zaigu. Hau da, pareko baina alderantziz. Biztanleak beheraka joan diren garaietan (1981etik 2001era, oro har ari gara ez zehatz-mehatz), euskaldunen dentsitatea mantendu egin da eta, kasu askotan, lehen urteetan gorakada txikia izan du. Aldiz, 1996tik aurrera, eta bereziki 2001etik aurrera, biz-tanleriak gora egin duenean, euskaldunen dentsitatea beherantz hasi da. Beherakada hori are nabarmenagoa izan da 2001etik 2006rako tartean. Hau da, "*demographically concentrated*" delakoa

galtzen ari da horrelakoetan. Arnasguneen izaera bizia da, dinamikoa. Dinamismo horren norabidea da kontuan hartu behar dena: ea arnasgune horiek indartuz doazen edota ahultzen ari diren.

— Erdaldunen dentsitatea, aldiz, oraindik nahiko txikia bada ere, goraka doa etengabe: %3,39 (1991) eta %5,09 (2006). Aldeak alde, denetan joera goranzkoa da. Noski, herrien artean aldeak daude.

— Ia euskaldunen kopuruak ere goranzko joera du: %2,50 (1991), %8,17 (2006). Kasu guztietan gertatzen da, gainera, hazkunde hori.

### 3.3 Ama-hizkuntzari bagagozkio

— Ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajea beherantz doa: %92,91 (1991n) eta %81,08 (2006an). Aldeak dauden arren, herri guztietako joera beheranzkoa da. Joera hori ez da gaurkoa. Azken 20-25 urteetan beheranzko joera ikus daiteke oro har. Azken urtetan joera hori azkartu egin da.

— Ama-hizkuntza gaztelania dutenena: %5,82 (1991n) eta %14,81 (2006an). Hemen ere, joera bera gertatzen da, aldeak alde, herri guztietan. Hau da, goranzkoa. Urtez urte goraka joan da herri horietan ama-hizkuntza gaztelania dutenen portzentajea.

— Ama-hizkuntza biak dituztenena goraka doa era berean: %0,92 (1991n) eta %2,82 (2006an). Joera bertsua herri guztietan.

— Ama-hizkuntza besteren bat dutenak agertzen hasi dira: %0,33 (1991n) eta %1,27 (2006an). Oraindik oso portzentaje txikia da. Datuozen urtetan eta immigrazioaren eraginez, portzentaje horiek nabarmen gora egingo dutela pentsa genezake.

### 3.4 Etxean egiten den hizkuntzari erreparatuz

— Euskaraz egiten dutenak beheraka doaz, nabarmen, azken 5 urteotan: %90,11 (1991n) eta %61,99 (2006an). Azken bost urteotan %83,34tik %61,99ra pasatu da. Azpimarratzekoa da beheranzko joera hori garbi ikusten dela 1996tik aurrera, baina oso nabarmen ageri dela, berriro ere, 2001etik 2006ko tarte horretan. Bost urte horietan sekulako beherakada ikusten da, beldurtzeko modukoa.

— Gaztelaniaz egiten dutenak nabarmen doaz goraka: %6,16 (1991n) eta %17,69 (2006an). Azken bost urteetan, berriro ere, eta aurreko datu guztien ildotik, gertatu da jauzirik handiena: %9,41etik %17,69ra. Kasu guztietan ageri da gainera: herri guztietan, salbuespenik gabe. Batzuetan jauzi handiagoa besteetan baino.

— Zein izan daitezke arnasguneetako gaztelaniazko jardunaren iturriak? Hauek izan daitezke horietako batzuk:

---

**Etxean euskaraz egiten dutenak beheraka doaz, nabarmen, azken 5 urteotan: %90,11 (1991n) eta %61,99 (2006an). Azken bost urteotan %83,34tik %61,99ra pasatu da.**

**Euskaldun  
aktiboen  
dentsitatea,  
etxetik euskaldun  
direnena eta  
etxean euskaraz  
egiten dutenena,  
beheraka doa.  
Nabarmenki  
azken 5 urteetan.**

1. Bertako (EAEko edo Euskal Herriko, maiz probintzia bereko eta, agian, eskualde bereko) herriburu erdaldunduagoetako bikote gazteen naturara bueltatzeko joera.
2. Herriko seme-alaben elearteko nahas-ezkontzak.
3. Bikotekide bat erdal-elebiduna izatea.
4. Euskalki bitako bikoteak.

— Biak (euskaraz eta gaztelaniaz) egitea: %3,62 (1991n) eta %19,94 (2006an) Batez ere hemen dago sekulako aldaketa. Nabarmena da azken bost urteetako jauzia: %6,72tik %19,94ra. Aurrekoaren ildo beretik kasu guztietan gertatzen da jauzi hori, gorakada hori.

Bi hizkuntzen erabileraren gorakada hori (hamabost urtetan %16,5 igo da batez beste) deskonpartimentazioaren adierazle nabarmena da. Deskonpartimentazioaren gertakari hori funtsezkoa da zer gertatzen ari zaigun interpretatzeko. Deskonpartimentazioa mintzaldaketaren atariko posible eta, sarri, probablea da. Bi hizkuntzen konpartimentazioa, diglosia egonkorra, apurtuz doa. Horren ordez, diglosiarik gabeko elebitasuna hedatuz doa. Hori, sarritan, mintzaldaketaren lehen urratsa izan ohi da.

— Etxean beste hizkuntzaren bat darabiltenena oraindik ia hutsa da: %0,39 (2006an). 2006. urte arte, immigrazio alofonoa (kasu honetan, euskara edo gaztelania ez den beste edozein erdara) txikia da arnasguneetan.

### **3.5 Ondorioak**

1. Herri euskaldunak dira oro har aztertutakoak. Euskara bizirik dago eta bertako gehienek, euskaraz egiten jakiteaz gainera, egin egiten dute euskaraz. Hala ere, joera batzuk oso begi-bistakoak dira. Joera horiek gainera ia kasu guztietan gertatzen dira, batzuetan indar handiagoz, besteetan baino. Hala ere, guztietan norabide bera dute.
2. Euskaldun aktiboen dentsitatea, etxetik euskaldun direnena eta etxean euskaraz egiten dutenena, beheraka doa. Nabarmenki azken 5 urteetan.

Euskaldunen dentsitate horrek, azken 5 urteetan izan du beheranzko jauzi handiena. Azken 10 urte aldera arte oso sendoak agertzen ziren herri horietako euskaldunen dentsitate-tasak, sekulako abiadan etorri dira behera azken 10 urtean eta, batik bat, azken 5 urtean. 1986an euskaldunen dentsitatea %95 inguru zuten herri batzuk %80 ingurura etorri dira 20 urte geroago (2006ko datuetan). Gauza bera esan genezake ama-

hizkuntza euskara dutenen portzentajeari dagokionez, eta baita etxean euskaraz egiten dutenen portzentajeaz ere. Hiru aldagai horiek kontuan hartuta eta korrelazioa eginez, garbi samar ateratzen zaigu arnasguneen norabidea eta bilakaera nondik norakoa den. Arrazoiak arrazoi eta zergatiak zergati, begi-bistakoa da arnasguneetan gertatzen ari den galera, atzerakada, euskararen bizi-indarrari lotzen bagatzaizkio.

1. Erdaldunen dentsitatea, ama-hizkuntza gaztelania dutenena eta etxean gaztelaniaz edo bietara egiten dutenena, goraka doa. Azpimarratzekoa da, duen garrantziagatik (kontuan izan hizkuntza baten egoera eta gizarte-moldaera erabilerak markatzen duela, ez hainbeste ezagutzak), etxean gaztelaniaz edo bietara egiten dutenak batuz, %37,63an kokatuko ginatkeela. Horrek, sekulako eragina du luzarora, hizkuntzen ukipenezko egoera horretan.
2. Euskara hutsezko jarduna galduz doa etxe-giroan, eta elebikoa zabaltzen ari da bere ordainean. Ez da, gainera, datu horietan bakarrik ikusten hori. EGAKo azterketa egitera joaten diren ikasleei egingdako galdeketetan, etxeko erabilera dela eta, joera hori bera nabarmentzen da. Ikus M. Zalbideren *“Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa.* (Zalbide, 2010: 139-143). Joera hori ez da berria gainera.

Fenomeno horrek sekulako garrantzia du, alde askotatik begiraruta. Hizkuntza-transmisioa litzateke lehena. Hizkuntza baten biziraupenak etxeko transmisio horretan du indar behinena. Are gehiago hizkuntza minorizatua denean. Transmisio horren sendotasuna ez ote du zalantzan jartzen joera berri horrek? Ukipenean dauden hizkuntzak erabiltzeko nahaste-borraste horrek zer-nolako ondorioak izan ditzake transmisio horren zabalean eta sakonean? Joera horrek zein hizkuntza indartzen du, gizartean nagusi dena edo egoera minorizatuan dagoena? Zer esan hizkuntza bakoitzaren prestigioan izan dezakeen eraginaz, kideen eredu-izaeraz? Ez al dugu bada sarritan ikusi hainbat etxetako bilakaera? Kide berriren bat etorri, inkorporatu familia girora, euskararen ezagutzarik gabe eta urte gutxian etxeko giro horretan gertatzen den bilakaera zein izan den?

3. Bada atal honetan funtsezko garrantzia duen gertakari bat. Deskonpartimentazioaren fenomeno da hori. Bi hizkuntzen arteko deskonpartimentazioa, hain zuzen. Lehen esan bezala, mintzaldaketaren atariko izan daitekeen lehen urratsa. Deskonpartimentazio horren eragina izugarria da, aztergai izan ditugun arnasgune ho-

---

**Erdaldunen  
dentsitatea, ama-  
hizkuntza  
gaztelania  
dutenena eta  
etxean  
gaztelaniaz edo  
bietara egiten  
dutenena, goraka  
doa.**

**Euskara hutsezko  
jarduna galduz  
doa etxe-giroan,  
eta elebikoa  
zabaltzen ari da  
bere ordainean.**



**Arnasgune horiek elebitasun zabal eta oinarrizko diglosia ereditik diglosiarik gabeko elebitasunera ari dira pasatzen. Hortik mintzaldaketara tarte txikiagoa dago.**

rietan. Kasu askotan %20 inguru hazi da azken hamabost urteetan. Gertaera horri ez diogu ematen behar adinako garrantzirik. Arnasgune horiek elebitasun zabal eta oinarrizko diglosia ereditik diglosiarik gabeko elebitasunera ari dira pasatzen. Hortik mintzaldaketara tarte txikiagoa dago.

#### **4. NAGUSITASUN-MOLDAERA LAU HERRI HORIETAKO IKASLEEN ARTEAN. GELA-ARGAZKIAK**

**I**  
Hasieran esan dugun eran, 14 geletan egin dugu gela-argazkia. Izan ere, datu demolinguitikoen osagarri, egokia iruditu zaigu ikasleen hizkuntza-erabilerari erreparatzea. Zenbat eta non erabiltzen duten euskara. Belaunaldi berriak dira, arnasgune horietan sortuak, bertan bizi direnak, euskarazko eredueta hezten ari direnak. Arnasgune horien etorkizuneko zutabeak.

Argazki hori egiteko erabili dugun tresna gela-argazkia deritzona da. Aplikazio bihurtuta dago, eta Ulibarri<sup>8</sup> programan dauden ikastetxe guztiek eskura dute, nahi dutenean erabilgarri.

*Zer da gela-argazkia?*

*Izenak berak aditzera ematen duen moduan, ikasgelaren argazki moduko bat egiteko tresna da gela-argazkia. Ikasleen mintzajarduna zer-nolakoa den azaldu nahi du. Mintzajardun nagusiaren argazkia egin nahi du, labur eta zehatz.*

*Zer egiten du gela-argazkiak?*

*Gelako ikasleek beren jardun-gune nagusietan, batez ere euskaraz, batez ere erdaraz edo bietara egiten duten azaltzen du gela-argazkiak. Ikasleen mintza jardunaren azterketa egiten du, aldakuntza-iturri nagusien eta kasuan kasuko rol-harreman esanguratsuenen arabera.*

*Ikasgelaz kanpoko jardun-guneetan ikasleek eta beren han-hemengo salaskideek euskaraz ala gaztelaniaz diharduten erakusten digu gela-argazkiak, aski era grafikoan. Gela barruan irakasteredu berbera izanik ere, oso argazki diferentea izan dezakete ikastetxe bateko edo besteko ikasleek. Modu grafikoan, kolore bidez, alegia, aditzera ematen du gela-argazkiak kasuan kasuko egoera konkretua.<sup>9</sup>*

Gela-argazkiaren emaitza nagusitasun-moldaerazko taula deskriptiboak dira. Une jakin bateko nagusitasun-moldaera. Une jakin batean, gela horietako ikasleen artean zein hizkuntza nagusitzen den jardun-gune bakoitzean adierazten du.

Nagusitasun-moldaerazko taula errazago ulertzeko, zenbaki baten bidez adierazten da bataren ala bestearen nagusitasuna. Otik 5era puntuatuta daude nagusitasun-baloreak: 0 zenbakiak gaztelaniaren erabateko nagusitasuna adierazten du. 5ak, aldiz, euskararen erabateko nagusitasuna. Horrezaz gain, aski modu grafikoan ikus daitezke nagusitasun horiek. Gelaxka bakoitza bere nagusitasunaren arabera koloreztatu da. Berdeak euskararen nagusitasuna adierazten du: zenbat eta berde ilunago, orduan eta euskararen nagusitasun argiagoa. Urdinak, gaztelaniaren nagusitasuna adierazten du: zenbat eta urdin ilunagoa, orduan eta gaztelaniaren nagusitasun argiagoa<sup>10</sup>.

Sei jardun-gune aukeratu dira eta horietaz galdetu zaie. Jardun-gune bakoitzean, noski, hainbat rol-harreman joka ditzakete eta horietako bakoitzaren nagusitasun-moldaerazko taula azter daiteke. Hona hemen, gela argazkietan agertuko zaizkigun jarduera-guneak eta rol-harremanak, bakoitza bere kodearekin.

#### 1. Taula. Azterturiko jardun-guneak eta rol-harremanak

Jardun-gunea	Rol-harremanak
1. Familia	1.1. Ikasleak beren gurasoekin; 1.2. Anai-arrebak beren artean; 1.3. Gurasoak beraien artean
2. Auzoa eta kalea	2.1. Ikasleak kaleko lagunekin; 2.2. Ikasleka auzoko ezagunekin; 2.3. Ikasleak auzoko ezezagunekin
3. Eskola	3.1. Ikasle/ikasle gelan; 3.2. Ikasle/irakasle gelan; 3.3. Ikasle-lagunekin jolaslekuan; 3.4. Ikasle/irakasle gelatik kanpora
4. Komunikazio alorra	4.1. Telefonoz; 4.2. Interneten; 4.3. Irrati-musika entzunez; 4.4. TB, bideoa, zinea, prentsa
5. Kirola	5.1. Kirolean
6. Eliza	6.1. Elizan

Gure lanean 14 geletan egindako gela-argazkiak izan baditugu ere aztergai, ez ditugu denak hona ekarriko. Bakarrik, kasu bat edo beste erakutsiko dugu, jakinik aztergai izan ditugun gela-argazkietan joera bertsua ikus daitekeela. Halaber, aztertu ahal izan ditugu ikastetxe berean egon den bilakaera hainbat urtetako gela-argazkiak eginez. Beraz, adibide moduan, lehenik bi herri ezberdinetako bi gela-argazki ekarri ditugu. Gero, herri berean eta ikasmaila berean sei urteko aldearekin egindakoak, bilakaera ikusteko.

**Familian,  
auzoan, eskolan,  
kirolean eta  
elizan euskaraz  
bizi dira ikasle  
horiek nagusiki.  
Bai duela 6 urte,  
eta bai gaur  
egun.**

### HR3 herriko gela-argazkia

Taula. LH4-A (LH4 A) ikasgelaren gela-argazkia

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA		1 familia			2 auzoa			3 eskola			4 komunikazioa				5 kirola		6 eliza
HEDABIDEA		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	3.50	4.18	-	3.92	4.00	2.77	4.15	4.85	3.77	4.92	2.85	2.45	-	-	3.33	5.00
	Jasotzea	3.62	4.00	2.38	4.08	4.15	2.23	4.08	4.85	4.00	4.85	2.85	2.45	2.67	2.11	3.33	5.00
IRAKURTzea	Egitea								D				2.45				
	Jasotzea								D				2.45	2.62			5.00
IDAZTEA	Egitea								D				2.45				
	Jasotzea								D				2.45				

### HR4 herriko gela-argazkia

Taula. LH5 — Ikasgelaren gela-argazkia

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA		1 familia			2 auzoa			3 eskola			4 komunikazioa				5 kirola		6 eliza
HEDABIDEA		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.32	4.71	-	4.60	4.73	3.53	5.00	4.87	4.67	5.00	3.93	2.73	-	-	4.53	4.47
	Jasotzea	4.32	4.93	3.40	4.60	4.67	3.00	4.73	4.87	4.73	4.73	3.93	2.73	3.70	3.29	4.53	4.47
IRAKURTzea	Egitea								D				2.73				
	Jasotzea								D				2.73	3.93			4.47
IDAZTEA	Egitea								D				2.73				
	Jasotzea								D				2.73				

### Herri bereko eta ikastetxe bereko 5. mailako ikasgelen arteko konparazioa

Taula. 2004-2005eko gela-argazkia. 5. maila

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA		1 familia			2 auzoa			3 eskola			4 komunikazioa				5 kirola		6 eliza
HEDABIDEA		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.67	5.00	-	5.00	5.00	5.00	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	5.00	-	-	5.00	4.75
	Jasotzea	4.67	5.00	4.08	5.00	5.00	3.08	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	5.00	3.33	2.47	5.00	4.75
IRAKURTzea	Egitea								D				5.00				
	Jasotzea								D				5.00	2.67			4.75
IDAZTEA	Egitea								D				5.00				
	Jasotzea								D				5.00				

Taula. 2010-2011ko gela-argazkia. 5. maila

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA		1 familia			2 auzoa			3 eskola			4 komunikazioa				5 kirola		6 eliza
HEDABIDEA		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	5.00	5.00	-	5.00	4.83	4.17	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	1.60	-	-	4.67	4.60
	Jasotzea	4.92	5.00	3.50	5.00	4.67	3.33	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	1.60	2.83	2.00	4.67	4.60
IRAKURTzea	Egitea								D				1.60				
	Jasotzea								D				1.60	1.50			4.60
IDAZTEA	Egitea								D				1.60				
	Jasotzea								D				1.60				

Gela-argazkietako ondorio laburra:

Laburtuz, gela-argazkietan ikusitakoaz, zera esan genezake: oro har, euskararen aldeko nagusitasun-moldaerak indartsu jarraitzen du aztertutako gela horietan. Familian, auzoan, eskolan, kirolean eta elizan euskaraz bizi dira ikasle horiek nagusiki. Bai duela 6 urte, eta bai gaur egun.

Bilakaerari dagokionez, joera batzuk ikus daitezke. Hala ere, gela-argazki gehiago beharko genituzke denboran, datozen urteetan joera horiek une jakin batekoak diren ala zerbait gehiago adierazten duten jakiteko. Hala ere, eta ditugun elementu mugatuekin, azter ditzagun ikusten ditugun joera horiek:

Familian, oro har, beheraka egiten du puntuazioak. Egia da oso apal egiten duela behera, baina ia kasu guztietan egiten du behera 6 urteko tartean. Gurasoen arteko mintzajardunak aipamen berezia behar du. Orain arte aztertutako gela-argazki guztietan tartea dago gurasoak seme-alabekin ari direnean eta beraien artean ari direnean. Puntuazioa baxuagoa da beraien artean ari direnean. Bilakaerak, gainera, berretsi besterik ez du egiten. Aurrerago ere aipatu dugu fenomeno horrek duen garrantzia. Elementu asko eta eragin handia biltzen dituen jokoera da hori.

Auzoan ere beheranzko joera ikusten da. Apala, egia da, baina beheranzkoa. Ezezagunekin jardutean nabarmentzen da, batik bat, joera hori.

Eskolan puntuazio altuak ikusten dira. Hala ere, hemen ere beherantz egiten dute puntuazioek.

Komunikazio-alorrean ikusten da garbienik nagusitasun-moldararen aldaketa hori. Duela 6 urte gelaxka berdeak ziren batzuk urdindu egin dira. Euskara nagusi azaltzen zen leku batzuetan gaztelaniak hartu du indarra eta, kasu askotan, lekua.

Kirolean eta elizan ez dago nabarmendu daitekeen jauzirik. Edozein modutan ere, hor ere behera egiten dute puntuazioek.

## 5. KULTURA-KONTSUMOA

Gela-argazkietan zerbait nabarmentzen bada, kultura-kontsumoaren aparteko joera da. Hori da, hain zuzen, ia kasu guztietan, batzuetan nabarmenago besteetan baino, urdin agertzen den atala. Hau da, erdaren erabilera nagusitzen den atala.

Kezka horri jarraituz, ikastetxe horietako 4., 5. eta 6. mailetakoa eta DBHko 2. eta 4. mailetakoa ikasleei galdeketa pasatu genien, beraien kultura-kontsumoari buruzko datuak jasotzeko ahaleginetan. Guztira, 194 ikasleren erantzunak dauzkagu jasota.

---

**Honako hipotesia genuen azterkizun: arnaguneetako ikasleek, eskolaz aparte, beren kabuz, zer produktu kultural kontsumitu hautatzen dutenean, gaztelaniak leku nabarmena hartzen duela hor, eta azken urteetan ingelesak ere sarbidea egina duela.**

**Hizkuntza bakoitzean telebista ikusten pasatzen duten denbora eta zein programa ikusten dituzten eta ikusienak zein diren kontuan hartuz, garbi dago ikasle horien erreferentziak non dauden eta nondik elikatzen diren.**

Azken urteetako eskolatzeko-prozesua euskaraz burutzen bada ere, honako hipotesia genuen azterkizun: arnasguneetako ikasleek, eskolaz aparte, beren kabuz, zer produktu kultural kontsumitu hautatzen dutenean, gaztelaniak leku nabarmena hartzen duela hor, eta azken urteetan ingelesak ere sarbidea egina duela. Hipotesi horren baieztapena eman digute, neurri batean, gela-azgazkiek. Hala ere, zehatzago aztertzeko eta beraien kulturazko elikagaia, beraien erreferentziak zein diren jakiteko, aparteko galdetegia prestatu genuen. Galdetegi horretako erantzunak izango ditugu aztergai atal honetan. Erantzun batzuk kuantitatiboak dira, grafikoetara eraman genituenak. Beste batzuk, aldiz, kualitatiboak, beraien aukeren zergatiak edo gustuak ikertu nahian.

Honakoak dira jasotako erantzunetatik ateratako ondorio nagusiak:

#### *A) Telebista*

Euskaraz gutxi ikusten dute gure ikasleek telebista (%25ek). Ikusten duten horietan, zer da ikusten dutena?

Oso dira bakanak gela bakoitzean aipatzen dituzten programak. Lehen Hezkuntzako artean ETB1eko Doraemon da ikusiena. 13 ikasleek aipatzen dute (194 ikasleetatik). Beste programa batzuk batek, bik aipatzen dituzte. Horietako batzuk: ETB1eko *Finlandia, Hirukiak, Mihiluze* (3), *Gaur egun* (2), *Pelota* (2) eta beste solteren bat. ETB3ko *Marrazkiak* (3), *Espioiak*; ETB-SATEko *Lazkao Txiki* eta Hamaika Telebistako *Pernando*. Lehen Hezkuntzako artean horiek dira funtsean agertzen direnak. DBHko ikasleen artean *Goenkale* da gehien izendatua (18 ikaslek). Jarraian, *Mihiluze* (4), *Finlandia* (4), *Gaur egun* (1), *Anitzele* (1), *Pelota* (1) eta *Bernak* (1). Horiek dira DBHko ikasle guztien artean euskaraz ikusten edo gehien ikusten dituzten programak.

Eta gaztelaniaz, zer ikusten dute?

Euskarazko programak laburtu ahal izan ditugu. Gaztelaniazkoekin ia ezinezkoa da hori. Zerrenda luzea da eta programen aniztasuna handia. Badira programak eta telebista kateak ezagutu ere egiten ez nituenak.

Esan bezala, kate asko agertzen dira eta programak ere asko dira. Kate digitalen eragina garbi ikusten da (Disney chanel, Clan, Neox, Nitro, Sexta, Cuatro, MTV) eta horrelako kateak behin eta berriz, gela guztietan dira aipatuak).

Hizkuntza bakoitzean telebista ikusten pasatzen duten denbora eta zein programa ikusten dituzten eta ikusienak zein diren kontuan hartuz, garbi dago ikasle horien erreferentziak non dauden eta nondik elikatzen diren.

## B) Bideoak, filmak

Gehienek gaztelaniaz ikusten dituzte (%83k). Zergatik galdetzen zaie-  
nean, honako erantzunak ematen dituzte: euskaraz ez daude, gaztelaniaz  
aukera askoz ere handiago dago, gaztelaniazkoak politagoak dira, ho-  
beak eta ulergarriagoak dira.

## C) Egunkariak

Ikasleen ia heren batek ez du sekula egunkaririk irakurtzen. %21ek  
egunero irakurtzen du. Gehienak, %57, astean behin hurbiltzen dira  
egunkaria irakurtzera. Irakurtzen duten horietako gehienek etxean ira-  
kurtzen dute. Nagusitasun handiz, %66, *Diario Vasco* irakurtzen dute  
arnasguneetako ikasleek. Hori da, askogatik, ikasle horien etxe gehie-  
netan sartzten den egunkaria. Izan ere, gehiengoak etxean irakurtzen  
baitu egunkaria (%82k). Euskara hutsean argitaratzen den egunkariak,  
*Berriak*, leku txikia du arnasmune horietako etxeetan eta irakurle apurra  
du (%13). Horiez gain, *Tolosaldeko Hitzak* badu irakurle multzotxo bat,  
baina hori ere ez da %15 ingurutik pasatzen.

## D) Irratia

Ia gaztetxo horien erdiak egunero entzuten du irratia (%48k) eta beste  
%35ek astean behin gutxienez. %17 da irratirik inoiz ez duela entzuten  
esaten duena. Euskarazko irratia nagusitzen da, batik bat *Euskadi Gaztea*  
(%60) eta, jarraian, *Euskadi Irratia* (%26). Beste irratia batzuk ere aipatzen  
dituzte tarteka-marteka.

## E) CD-ak

CDen erabilera hedatua dago. Hala ere, alde nabarmenak daude ba-  
tzuetatik besteetara. Gehiengoak (%69k) 30 minutu baino gutxiago era-  
biltzen du egunean. Aldiz, %3k hiru ordu baino gehiago entzuten duela  
aitortzen du. %28k 1-2 ordu arteko entzunaldiak egiten dituela dio.

Hizkuntzari dagokionez, oso dira datu adierazgarriak. Hiru hiz-  
kuntzen artean (euskara, gaztelania eta ingelesa) nahiko modu pareka-  
tuan banatzen dute dagoen denbora. Praktikoki bakoitzak hiru zatietako  
bat hartzen du. Hizkuntza batekoa izan edo bestekoa izan, ez da muga-  
tzailea. Hiruretan mugitzen dira asko modu erosoan.

## F) Internet

Interneten erabilera zabaldua dago arnasmune horietako ikasleen artean.  
Guztiak dute harremana Internetekin. Gehienek etxean dute, %91k, eta,  
bestela, eskolan erabil dezakete eta erabiltzen dute. Maiztasun handiz

---

**Zein  
hizkuntzatan  
dabilta sarean?  
Gaztelania da  
nagusi.  
Gaztelaniaz  
gehiago mugitzen  
dira sarean  
euskaraz baino.  
Ez dago alde  
nabarmenik,  
baina  
gaztelaniaren  
nagusitasun-  
moldaera  
gailentzen da.**



**Esan genezake haur eta gaztetxoek kasuan gehiago irakurtzen dela euskaraz. 12 urteren bueltan jarritz gero mugarriren bat, esan genezake adinean gora joan ahala, beheraka doala euskaraz irakurtzeko ohitura.**

dira erabiltzaile gainera. %41ek adierazten du egunero erabiltzen duela. Hor kontuan izan behar 4. mailako ikasle multzo bat badagoela, eta pentsa genezake horiek gutxiago erabiliko dutela.

Zein hizkuntzatan dabilta sarean? Gaztelania da nagusi. Gaztelaniaz gehiago mugitzen dira sarean euskaraz baino. Ez dago alde nabarmenik, baina gaztelaniaren nagusitasun-moldaera gailentzen da.

#### G) Liburuak

Nahiko modu parekatuan irakurtzen dituzte bi hizkuntzetan liburuak. Ez dago alde adierazgarriarik batetik bestera, nahiz eta euskarazko liburuak irakurketa portzentualki handixeagoa den.

#### H) Aldizkariak

Zein aldizkari dira ikasle horiek irakurtzen dituztenak?

Merezi du hona ekartzea aipatutako guztiak. Bakoitzaren ondoan, zenbatak aipatu duen agertzen da parentesi artean. Hauek dira:

*Errota beltza (13), Aiuurri (10), Bravo (10), Galtzaundi (8), Futbolista (7), Aldin eta aidanean (4), Betizu (4), Patito feo (3), Marca (3), Don balón (3), Como tu (3), Hola (3), Super pop (3), Mantangorri (3), Perros y compañía (2), Muy interesante (2), Sport (2), Tu (2), Moto verde (2), Argia (2), Semanal (2), Pala, pico, pata, Hi etxean, Hannah-Montana, Irria, Disneykoa, Teens stars, Enduro, As, Junior, NBA, Pop music, Top music, Girls, Pronto, Motoen aldizkariak, Nintendo acción, Hitza, Offraad, Jara y sedal, Todo rally, Futbola eta kotxeak, Zazpina, Venca.*

Harpidetzari dagokionez, *Betizu* da harpidetza gehien duena. Gero, *Beterri* eskualdeko aldizkariak jarraitzen dio. Besteak, urrun geratzen dira. Harpidetzen portzentajea %28an kokatzen da.

#### I) Erakusketak-emanaldiak

Emanaldi kulturaletara joateko maiztasunari buruz galdetuta, inoiz ez direla joaten edo hilean behin baino gutxiagotan joaten direla dio gehiengo nabarmenak, %77k. Hilean behin joaten dela esaten duena batuz %93an jarriko ginateke. Beraz, gure ikasle horien artean ez dago erakusketak edota kultura-emanaldietara joateko ohitura edo joera handiegirik. Joaten diren kasuetan zein hizkuntzatan diren galdetuta, gehiengo batek euskaraz direla dio. Hala ere, eta ingurune horretan dagoen eskaintza gehienbat euskaraz dela jakinik, nahiko adierazgarria egiten da heren batek ia, gaztelaniaz ikusten edo entzuten dituela esatea.

## 6. HERRIKO BESTE ATAL BATZUK. HAINBAT DATU

### I

#### Udalerrria

Bi kasutan udalerrriak indarrean du normalkuntza plana. Beste batean jartzekotan dira. Aztertutako lau kasuetan ez dago euskara teknikaririk udaletxean.

#### Udaletxea

Udalak barruko bizimoldea, oro har, euskaraz burutzen du. Kasuren batean, gaztelaniara jo beharrean aurkitu izan dira, baina, oro har, euskaraz burutzen dira batzar eta bilerak. Hori aztertutako lau herrietan, nahiz eta batzuetan euskararen erabilera sendoagoa sumatzen den. Herriarrekiko komunikazioak: bandoak, herriko jai-egitaraua, udaleko zerga-ordainketak eta antzekoak euskaraz hein handi batean, nahiz eta zenbait obra tekniko gaztelaniaz bideratzen diren.

#### Irakaskuntza

Arnasgunearen indargarri bilakatzen da irakaskuntza aztertutako lau kasuetan. Irakaskuntza arautua euskaraz antolatua dago. D eredia.

Hautzaindegi zerbitzua, lau kasuetan, erabat euskaraz izaten da.

Gau eskola. Kasu batean aipatzen da martxan dagoela gau eskola 6 ikaslerekin. Beste kasu batean, joan zen ikasturtean eskolako normalkuntza planaren bidez, mintzalagun programa martxan jarri zela. Beste bi kasuetan ez dago gau eskola dei geniezaiokeen modukorik.

#### Udal Liburutegia

Hiru kasutan badago udal liburutegia.

Hornikuntzari dagokionez, euskarazko fondoa nahiko osatua dela uste da, batik bat haur eta gaztetxoentzat daudenetan.

Oro har, eta jasotako datuak kontuan izanik, esan genezake haur eta gaztetxoek kasuan gehiago irakurtzen dela euskaraz. 12 urteren bueltan jarriz gero mugarriren bat, esan genezake adinean gora joan ahala, beharera doala euskaraz irakurtzeko ohitura. Zehatz-mehatz ezin dugu proportziorik eman, baina joera hori berresten dute jasotako datuek.

Beste kontu bat da liburuak ez diren materialak (DVDak, etab.). Kasu horietan gaztelaniazkoak gehiago mailegatzen dira. Horretan zehazkia izan dezake, kasu askotan, euskarazko eskaintzaren urritasunak.

#### Komunikabideak

1. Eskualdean bi aldizkari argitaratzen dira: *Galtzaundi* (Tolosalde osoan

---

**Garbi samar  
dago  
arnasguneetan  
ere gaztelaniaz  
argitaratzen  
diren egunkariak  
direla  
salduenak/iraku-  
rrienak.  
Nabarmen  
gainera.**

**Datu horien argitan zera ikus genezake: euskararen erabilera handia dela herri horietako saltokietan. Saltzaileak, oro har, gai dira eta egiten dute euskaraz. Hala ere, gaztelaniak badu sarbidea eta erabilera.**

banatzen dena) eta *Aiurri* (*Beterri-Aiztondon* jasotzen dena). Horiez gain, eskolek noizbehinka aldizkariak atera eta gurasoen artean banatzen dituzte.

Aldizkari horien irakurle kopuruak ezin dira zehatz-mehatz jakin, bi bide erabiltzen baitira beroriek eskuratzeko. Batetik, harpidetza<sup>11</sup> sistema dago eta etxean jaso daitezke. Bestetik, aldizkariak leku jakinetan (dendetan, etab.) uzten dira, nahi duenak har dezan. Hala ere, *Galtzaundi*ko harpidetzen kopuruak ideia bat eman diezaguke bere errotzeari buruz. Hauek dira:

- HR1.- 4 harpidetza. Uzten diren aldizkariak: 155
- HR2.- 7 harpidetza. Uzten diren aldizkariak: 200
- HR3.- 0 harpidetza. *Aiurri* jasotzen da herri horretan. Ez da *Galtzaundi* banatzen.
- HR4.- 4 harpidetza. Uzten diren aleak: 100

2. Irratia. Eskualdean irrati bat badago, Txolarre irratia. Horrez gain, zenbait eskolak ere badute beraien emisioa. Ez ditugu jaso entzuleen kopuruen datuak.

3. Eskualdean badago, halaber, telebista kate bat: 28 kanala. Ez ditugu jaso entzuleen kopuruen datuak.

4. Egunkariei dagokienez, gero aztertuko ditugun nazio eta estatu mailako egunkariez gain, eskualdeko egunkaria ere (*Hitza*) aipatu beharrekoa da, bere zabalkundearen garrantzia kontuan izanik.

Harpidetza kopuruak noraino diren esanguratsuak edo ez jakiteko, beste hainbat daturekin konparatu beharko genituzke. Adibidez, herri bakoitzeko euskaldun alfabetatuen kopuruarekin konpara genezake. Konparazio hori, hala ere, oso kontuz hartzekoa litzateke, alfabetatuen datuak 2006koak baitira, 2 urtetik gorako biztanleak harturik, eta *Hitzaren* harpidetza-datuak 2012koak dira. Hala ere, joera edo proportzioak ikusteko baliagarria izan daiteke konparazio hori. Hauek liriateke, herriz herri, konparazio horretako datuak:

- HR1.- 1099 euskaldun alfabetatu. *Hitzaren* 164 harpide. Alfa-  
betatuen %14.92
- HR2.- 752 euskaldun alfabetatu. *Hitzaren* 84 harpide. Alfa-  
betatuen %11.17
- HR3.- 926 euskaldun alfabetatu. *Hitzaren* 38 harpide. Alfa-  
betatuen %4.10

— HR4.- 740 euskaldun alfabetatu. Hitzaren 55 harpide. Alfabetatuen %7.43

BERRIA Euskal herriko egunkari euskaldun bakarra da. Zein errotze-maila du arnaguneetan? Ikus ditzagun herri horietako BERRIAren harpide kopuruak eta konpara ditzagun bertako alfabetatu kopuruarekin:

— HR1.- 39 BERRIAren harpidedun. 1099 euskaldun alfabetatu. Beraz: alfabetatuen %3.55

— HR2.- 26 harpidedun. 752 alfabetatu. Beraz: alfabetatuen %3.46

— HR3.- 16 harpidedun. 926 alfabetatu. Beraz: alfabetatuen %1.73

— HR4.- 17 harpidedun. 740 alfabetatu. Beraz: alfabetatuen %2.30

Zein egunkari irakurtzen da herri horietan?

Banatzaileetatik eta dendetan bildutako datuak kontuan hartuz, eta jasotako informazioaren arabera, *Diario Vasco* da salduena (%70). Ondoren datoz *Gara* (%13), *Berria* (%9), *Noticias de Gipuzkoa* (%5) eta beste hainbat. Datu horiek ez dira zehatz-mehatzak, aldakortasun bat izan dezakete. Hala ere, joerak ikusteko baliagarriak direla uste dugu.

Aipatu ditugun horiez gain *Deia*, *El Pais*, *El Mundo*, *Gaceta Negocios*, *Mundo Deportivo*, *Marca*, *Sport*, *As*, *Expansión País Vasco* eta beste batzuk aipatzen dira.

Ikasleengandik jasotako datuak eta irakasleek jasotakoak konparatuz, alde txiki batzuk ikus daitezke. Hala ere, joerak bat datoz, eta asko hurbiltzen dira datuetan ere.

Datu horien argitara, garbi samar dago arnaguneetan ere gaztelaniaz argitaratzen diren egunkariak direla salduenak/irakurrienak. Nabarmen gainera. *Diario Vasco* da, askogatik, egunkari hedatuena.

Gune euskaldunenetan ere, albisteak, iritziak, erreportajeak... gaztelaniaz jasotzen dira. Horrek ezinbestean eragina izan behar du gai jakinetako terminologiaren finkapenean, espresio eratuaren erabilpenean, hiztegiaren zabalkunde edo murriztean eta antzeko aldagaietan.

## Lan-mundua

Lan-mundua ez dugu zehatz-mehatz aztertu. Batetik, ez delako erraza datuak jasotzea hizkuntza-erabilerari dagokionez.

Aztertutako lau herri horietan, enpresa bakar bat bakarrik aurkeztu zen *Lanhitza* deialdira 2010ean eta 2011n. *Lanhitza*ko datuen arabera, en-

**Betidanik  
beraien artean  
euskaraz aritu  
izan diren  
bizilagunak,  
euskara/gaztelania  
tartekatzen edota  
gaztelaniaz hitz  
egiten hasi dira.**

**Aztertutako lau herrietan 5 medikuetatik 3 euskaraz moldatzeko gai dira.**

presa bakarra legoke lau herriotan euskara plana martxan duena. Enpresa gehienek dokumentazioa, paisaia, etab., gaztelaniaz dago. Enpresaren kudeaketa hein handi batean gaztelaniaz egiten da.

Langileen arteko erabilerari dagokionez, egoera askotarikoak daude, egoera nahasiak ematen dira. Enpresa handi edo ertainetan langile guztiak ez dira euskaldunak eta horrek asko baldintzatzen du beraien arteko euskarazko erabilera, nahiz eta langileen arteko euskararen erabilera-portzentajea handiagoa izan beste eskualdetako enpresa askotan baino.

### **Merkataritza**

Aldeak daude herri batzuetatik besteetara. Aztergai izan ditugun bi herrietan euskara erabiltzeko ez dago zailtasunik bertako merkataritza esparruan. Merkatarari denak euskaraz dakitenak dira. Beste bi herrietan, biztanle gehien dituztenetan, aldiz, erabileraren portzentajea altua bada ere, badago denda bakanen bat edo jatetxeren bat gaztelaniaz diharduena.

Horietako batean, harrera eta erabilera euskaraz da %93,10ean. Bestean, aldiz, %60ean euskaraz dela kontsidera genezake, eta %30ean elebitan. %10ean gaztelaniaz egin behar da, merkataritza edo bertako langileak ez dakielako euskaraz. Datu horiek ez dira zehatz-mehatz hartu behar, errore tartea izan dezakete. Hala ere, jaso ditugun datuetatik atera ditugu. Bestalde, elebitan diogunean bi hizkuntzen arteko nahaste edo etengabeko kode aldaketaz arituko ginateke. Zenbait kasutan hori nabarmena da.

Fakturei bagagozkie, eta batik bat ostalaritzan ikusitakoaren arabera, kasu gehienetan gaztelaniaz daude. Ikusitako kasuen %80 edo gehiago daude gaztelaniaz. Badira elebitan dauden kasu batzuk, eta bakan batzuk dira euskaraz soilik daudenak. Tikeetak, kasu gehienetan, gaztelaniaz daude.

Paisaiari dagokionez, gaztelaniaren presentziak leku handia du. Batik bat kate bateko denda denean. Hornitzaileak sortua denean. Horietan eskaintzak, produktuen ezaugarriak deskribatzen dituzten oharra, panelak, etab., gehienetan gaztelaniaz dira. Beste kasu batzuetan, bertakoek jarritako oharra, deiak, etab., direnean, euskaraz edo elebitan azaltzen dira. Merkatarari berak jarriak direnean, erdia baino gehiago euskaraz edo elebitan egoten da. Hor ere, herri batetik bestera aldeak daude.

Denda, jatetxe, harategi, kafetegi edo dena delako saltokiaren izena, ia kasu guztietan, euskarazkoa da.

Datu horien argitan zera ikus genezake: euskararen erabilera handia dela herri horietako saltokietan. Saltzaileak, oro har, gai dira eta egiten dute euskaraz. Hala ere, gaztelaniak badu sarbidea eta erabilera. Kasu

batzuetan, gutxienetan, saltzaileak ez dakielako euskaraz. Beste kontu bat da mintzajardunean kode aldaketaren fenomenoak. Horrek hedapen handia du. Datuak biltzen lagundu zidan irakasle batek, oso modu grafikoan kontatzen zidan erosketak egitera joaten zen betiko dendan, zernolako aldaketa gertatzen ari zen azken urteetan bere begien aurrean. Betidanik beraien artean euskaraz aritu izan diren bizilagunak, euskara/gaztelania tartekatzen edota gaztelaniaz hitz egiten sumatzen dituela. Nahikoa da kideetakoren bat gaztelaniaz zertxobait esaten hastea, beste guztiak ere hizkuntzen arteko dantza horretan murgiltzeko. Hizpide dituzten gaiek ere, badute hor zerikusirik. Telebistan ikusitakoaz, azken aldizkarian irakurritakoaz, eta era horretako gaiez ari direnean, askotan gaztelaniaz jasotako eduki horiek gaztelaniaz kanporatzen dituzte. *Zer jan, hura...* Gure kontsumo kulturalak, gure mundu erreferentzialak izango dute, seguruenik, hedatzen doan fenomeno horretan zeresanik.

---

**Lautik bi kasutan erizain-zerbitzua gaztelaniaz ematen da.**

## **Finantza-etxeak**

Aztertu diren kasuetan finantza-etxeek, konkretuki *Kutxak*, euskaraz hitz egiteko inolako eragozpenik ez dute. Harrera eta hitzezko erabilera euskaraz da.

## **Garraioa**

Herri horietako garraio-zerbitzuak TSS edota Lurralde Bus dira. Autobus-gidariei dagokienez, jasotako datuen arabera badaude euskaraz ez dakiten gidariak.

## **Osasun-zerbitzua**

Osasun-zerbitzua ez da guztiz euskalduna.

Aztertutako lau herrietan 5 medikuetatik 3 euskaraz moldatzeko gai dira. Beste bi kasuetan hizkuntza gaitasunez juxtu dabilta. Ikasten ari diren medikuak dira eta, hainbatean moldatzen badira ere, batzuetan oztopo txiki batzuk sortzen dira.

Medikuaz gain, beste osasun-zerbitzuei dagokienez, jasotako datuen arabera, kasu batean bertako zerbitzuak (pediatra, erizaina...) euskaraz atenditzeko gai dira. Beste kasu batean bertako erizaina gaztelaniaz aritzen da. Beste bi herritan, gauza bera gertatzen da. Batean erizaina euskalduna da, bestean gaztelaniaz aritzen da. Beraz, lautik bi kasutan erizain-zerbitzua gaztelaniaz ematen da.

Botika, berriz, 2 kasutan ez da gai bere zerbitzua euskaraz eskaintzeko. Beste kasu batean, ikasten ari da botikaria.



**Enpresen izenak sarritan euskaldunak dira, baina errotulazioa edota enpresa horietako furgonetak, ateko oharrak eta horrelakoak, nagusiki, gaztelaniaz daude.**

## Eliza

Aztertutako lau kasuetan katekesia euskaraz bideratzen da. Elizkizunei dagokienez, mezak, etab., euskaraz egiten dira ia beti. Horietako herri batean, astean behin, meza elebitan egiten da.

## Aisialdiko taldeak

Herri horietan badaude hainbat elkarte eta talde. Elkarte gastronomikoak, kultura-taldeak (kasu batzuetan), dantza taldea, mendi elkarteak, etab.

Oro har, eta jasotako datuak kontuan izanik, ia talde-elkarte guztietan euskararen erabilera oso handia da. Kasu batzuetan euskara hutsean jarduten dute. Beste batzuetan elebitan, kideen hizkuntza-ezaugarriak horrela eskatuta. Edozein modutan erabilera nagusia euskarazkoa da.

Herriko beste esparruetako datuen atal honi amaiera emateko, esan dezagun aztergai izan ditugun herrietan eguneroko jardun arrunta, oraindik ere, euskaraz burutzen dela hein handian. Administrazioa, zerbitzuak, merkataritza, etab., euskaraz bizi dira tamaina ohargarrian. Hala ere, hainbat hutsune ikusten dira eskaintzari dagokionez: nabarmenena osasun-zerbitzua da. Bestalde, biztanleen erabilera xeheago aztertu beharra dago. Hor ere, kode-aldaketa eta antzeko fenomenoak indartzen ari dira eta gaztelaniak bere sarbidea erraz aurkitzen du. Azkenik esan, deigarri egiten direla kontsumo kulturalaren datuak. Eskasa da, arnasmune horietan, euskal prentsaren inpaktua. Urria da euskaraz irakurtzen dutenen ehunekoa. Gaurko bizimoldea kontuan hartuz, horrek izan dezake eraginik hizkuntza beraren lanketan eta aberaste edo pobretze prozesuan, hala nola komunitate linguistiko eta kultural horren erreferenteen munduan.

## 7. ARNASGUNE HORIETAKO PAISAIA LINGUISTIKOA

### I

Azaleko paisaia aztertuko dugu, beraz: udalerriko seinaleak, merkataritzako errotuluak, lantegien izendapenak, partikularren oharrak eta antzekoak. Soilik aurkezpeneko, azaleko, hizkuntza-erabilera izan dugu aztergai.

### Seinale ofizialak

- Hiru eratakoak aurkitzen dira.
- Foru Aldundiak edota antzeko erakundeek –herri mailatik hara-tagokoek–jarritakoak. Oro har, horiek guztiak elebitan daude.
- Udalak jarritakoak, aldiz, gehienak euskara hutsean daude. Garbi ikusten da hori lau herrietan. Bide-seinaleak, parkeetako kartelak,

kaleen izenak, baserri eta auzoetarako seinaleak, etab., ia guztiak euskaraz daude.

— Ildo beretik euskaraz daude herri mailan udalak jarritako argibi-deak edota herriko ekimenen berri ematen duten kartelak.

— Azkenik, enpresa jakin batzuek herriko zenbait gunetan jarritakoak leudeke. Horiek, guztiak gaztelaniaz daude.

## **Merkataritzako errotulazioa**

Denden, jatetxeen, saltokien eta antzekoen errotulazioa, oro har, euskaraz dago. Euskaraz gehiago dago, nahiz eta gaztelaniaz edota elebitan ere aurki daitekeen bat edo beste.

## **Partikularrak**

Elkarteen izenak euskaraz daude ikusitako kasu guztietan.

Etxeen izenak ere euskaraz daude jarriak. Joera hori orokorra da.

Balkoietan, garajeetan eta abarretan, jarritako karteletan eta oharretan bagagozkie, ez dago nagusitasun nabarmenik. Herri batzuetan euskaraz gehiago daude eta beste batean gaztelaniazkoak ugari antzean dira.

## **Lan mundua. Industriaguneak**

Eremu hori da herri horietan euskararen presentzia urriena duena. Industriaguneko errotulazioa, industriagunearen kokapena adierazten duena, Udalak kudeatua denez, euskaraz agertzen da, baina enpresetako errotulazioa edota garajeetako oharrak, etab., gaztelaniaz daude kasu gehienetan.

Enpresen izenak sarritan euskaldunak dira, baina errotulazioa edota enpresa horietako furgonetak, ateko oharrak eta horrelakoak, nagusiki, gaztelaniaz daude. Sarrera-irteeretako oharrak, ez aparkatzeko seinaleak, gaztelaniaz daude halaber ia kasu guztietan. Industriaguneak dituzten herrietan hori are nabarmenago ikus daiteke. Beste kasu batzuetan elebitan agertzen zaizkigu.

Eta badira, azkenik, oso bakanak baldin badira ere, errotulazioa, eta kasu batzuetan furgonetetako idazkiak ere, euskaraz bakarrik dituztenak.

## **8. ONDORIO OROKORRAK**

**I**

Honaino hainbat datu estatistiko, ikasleen gela-argazkiak, kontsumo kulturala, etab., ikusi eta aztertu ditugu. Bidean, zenbait ondorio ere aipatu dugu. Ondorioak iradokitzen edota aipatzen joan gara. Orain ueña

---

***Herri horietan,  
euskaldunak  
oraindik nagusi  
dira  
demolinguistikoki,  
baina  
nagusitasun hori  
asko ahuldu da  
urteen joanean,  
eta, bereziki,  
neurtutako azken  
6-10 urtetan.  
Ama-hizkuntza  
euskara dutenen  
kopuruak ere  
behera egin du  
nabarmen.***

**Bada zerbait,  
bost urteko  
aldean  
portzentualki  
%18,95 igotzea  
etxean  
gaztelaniaz edo  
bietara jarduten  
duten biztanleen  
ehunekoa.**

**Etxe-giroa  
erdaldunduz doa.  
Elebidunduz edo  
mintzaldatuz.**

da, guztien laburbilduma eginez, honako hau argitzeko: aztertu ditugun herri horietan noraino betetzen ari da M. Zalbidek arnasguneei buruz esandakoa?

Mintzaldaketa gertatzen den kasuetan zein dislokazio motak eragiten duen ikusi dugu gorago; orain, horietako zein dislokazio ikusten diren gure kasuetan aztertuko dugu. Halaber, arnasguneei buruz jardutean, oraingo egoera deskribatzean, hainbat ezaugarri aipatu izan ditu M. Zalbidek. Aztergai izan ditugun herrietan, ezaugarri horiek noraino eragiten ari diren arakatuko dugu.

Aztertutako lau herrietan, joera eta norabide batzuk garbi ikusten dira. Guztietan ageri dira, gainera. Batzuetan era bortitza goan besteetan baino, baina guztietan euskarazko nagusitasun-moldaerak beheranzko norabidea du. Mintzaldaketaren lehen aztarna izan daitekeen gertakari sendo baten aurrean geundeke, oraingo joera eta norabidea datozen urteetan berretsiz gero. Norbaitek esan dezake oso ikuspegi ezkorra dela, eta herri horiek oso euskaldunak direla, eta ez dagoela alarmarako arrazoirik. Egia da herri horiek eta antzekoak euskaraz bizi direla, gaur egun, hein handi batean. Datuek ere hori diote. Gipuzkoan ditugun arnasgune sendoenak dira horiek. Hala ere, badakigu jakin, mintzaldaketa ez dela egun batetik bestera hezurramitzen, ez dela urte gutxiko aldaketa. Aitzitik, urteen joanean, ia oharkabean gauzatzen diren aldaketen ondorioz gertatzen den fenomeno da hori. Norabide baten, ibilbide baten azken urratsa, lehen atalean ikusi dugun bezala. Zein norabidetan doaz, hizkuntzaren nagusitasun-moldaerari dagokionez, gure arnasguneak?

Aztergai izan ditugun lau herrietan norabide eta joera batzuk oso argiak dira. Aztertutako datu guztiek joera eta norabide bera berretsi besterik ez dute egiten.

Euskararen nagusitasun-moldaerak, oraindik indartsu den arren, behera egin du herri guztietan. Euskaldunen dentsitatea jaitsi egin da, erdaldunena igo. Herri horietan, euskaldunak oraindik nagusi dira demolingüistikoki, baina nagusitasun hori asko ahuldu da urteen joanean, eta, bereziki, neurtutako azken 6-10 urtetan. Ama-hizkuntza euskara dutenen kopuruak ere behera egin du nabarmen. Aldiz, ama-hizkuntza gaztelania, biak edota besteren bat dutenena igo egin da. Etxeko erabilera, bereziki, norabide hori bera ikusten da. Hau da, etxean euskaraz egiten dutenen kopuruak behera egin du, nabarmen egin ere, azken hamarkadan. Aldiz, gaztelania etxean sarbide erosoan izan du eta haren erabilera nabarmen igo da portzentualki. Joera horiek, gainera, eta hori garrantzizkoa da azpimarratzea, orokorrak dira. Orain arte aztertu ditugun kasu guztietan gertatzen dira, salbuespenik gabe. Hemen hizpide

izan ditugun herriez gain, Tolosaldeko beste arnasguneetan ere gauza bera gertatzen ari da. Herri horietako datu demolinguistikoak ikusi besterik ez dago horretaz ohartzeko. Herri batzuetan, lehen esan bezala, erasan hori bortitzagoa da besteetan baino, gero ikusiko ditugun arrazoiengatik. Maldan beherako pendiza pikoagoa da kasu batzuetan, baina denetan da aldapa beherako irudia grafikoetan. Beheranzko joera hori aspalditik bazetorren ere, urte luzeetan aski egoera egonkorrean mantendu izan dira gauzak. Zenbait kasutan, eskola euskaraz abiatzearen ondorioz, besteak beste, eusteaz gain, zertxobait gora ere egin du urte batzuetan. Baina azken hamarkadan, eta bereziki 2001etik 2006ra, nabarmenki aldatu dira gauzak. Ordura arte urtetan eta urtetan nahiko modu egonkorrean euskaldun dentsitate ia erabatekoz mantendu izan diren herri askotxo behera etorri dira, bai euskaldunen dentsitate horretan, bai etxeko erabileran. Azpimarratzekoa da, duen garrantziagatik (kontuan izan hizkuntza baten egoera erabilerak markatzen duela eta ez hainbeste ezagutzak), etxean gaztelania edo biak erabiltzen dituztenak batuz (hasierako 12 herrietan), %37,63an gaudela 2006an. Sakonago aztertu ditugun 4 herrietako batez bestekoa, berriz, %38,55 da 2006an. Aldiz, 5 urte lehenago, 2001ean, bi horien batura %19,60 zen. Bada zerbait, bost urteko aldean portzentualki %18,95 igotzea etxean gaztelaniaz edo bietara jarduten duten biztanleen ehunekoa. Horrek sekulako eragina du luzarora hizkuntzen ukipenezko egoera horretan. Euskara hutssezko jarduna galduz doa etxe-giroan, eta ele bikoia zabaldu egin da haren ordainean. Etxe-giroa erdaldunduz doa. Elebidunduz edo mintzaldatur.

### **Zerk eragiten du aldaketa?**

Esana dugu mintzaldaketak motibo sozial jakinak dituela. Ikus ditzagun, beraz, horietako zein antzeman ditzakegun aztergai ditugun kasuetan.

Hizkuntza erabiltzeko debekua genuen lehen arrazoietakoa bat hizkuntzaren atzerapenean edo mintzaldaketa gertatzen den kasuetan. Noraino du horrek gure kasuan eragina? Egia da, azken 30 urte ingurura arte, debekuz betea egon dela euskararen erabilera. Ezaguna da gure hizkuntzak pairatu duen jazarpena eta ukazioa. Mespretxua eta gutxiestea ere bai. Torrealdai, besteak beste, nahiko dokumentatua du hori *El Libro negro del euskera* liburuan (Torrealdai, 1998). Xamarrek ere antzera, *Orekan. Herrien eta Hizkuntzen ekologiak* (Xamar, 2001:112-113) liburuan, hainbat egoeratan hiztunek jasotako irri, umiliazio eta mespretxuen eragina aski grafikoki ilustratu izan ditu. Noraino du horrek guztiak eragina gaurko hiztunen mintzamoldean? Horrek esplikatu al le-

---

**Debekuarena ez da, gaur-gaurkoz, mintzaldaketaren arrazoia.**

**Dislokazio fisikorik ere ez dago arnasgune horietan.**

**Dislokazio demografikoa bai. Horrek eragiten du herri horietako hizkuntza-moldaeraren bilakaeran. Esan dugu dislokazio demografikoak hiru iturri nagusi dituela: emigrazioa, immigrazioa eta jaiotze-tasaren ahultzea.**

**Urbanizazio  
berriak herri  
horietako  
urteetako  
bizimoldea  
zeharo aldatu du.**

zake gaurko gazteen mintzajardunaren bilakaera? Zerikusirik izango du seguruenik, zeharka, horrek guztiak. Gutxiestea, debekua, etab., jasotako guraso horiek, transmitituko diote seme-alabei hori guztia beraien hizkuntzarekiko balorazioetan, prestigio kontuetan, etab., baina ez dut uste horrek baldintzatzen duenik gehiegi gaurko erabilera-moldearen arrazioetan. Gazte horiek ez dute garai hori bizi izan. Aitzitik, euskarazko eruedetan heziak izan dira, euskararen aldeko kanpainak, diskurtsoak, gizarte-sariak... euskararen erabilera bultzateko motiboak lirateke. Azken 30 urteetan euskarak prestigioa irabazi du, ez dago debeku espresurik behintzat, zailtasunak eta trabak badaude, baina horien eragina txikiagoa da arnasguneetan. Debekuarena ez da, gaur-gaurkoz, mintzaldaketaren arrazioa. Nola esplika bestela, debekua eta mespretxua indarrean zeudenean, urte luzeetan, euskarak bere horretan iraun izana arnasgune horietan, diglosia sendoz, eta, gaur egun, debekurik ez daukanean, eskola euskaraz jaso daitekeenean, komunikabideak euskaraz kontsumi ditzakegunean, etab., orduantxe gertatzea diglosiaren apurketa eta mintzaldaketaren zantzuak hedatzen hastea?

Dislokazio fisikorik ere ez dago arnasgune horietan. Aztergai ditugun herri horietan ez da gertatu ez txikizorik, ez lurrikararik, ez antzeko ezer biztanleriaren suntsitzea ekar lezakeenik. Dislokazio fisiko bortitzik ez da gertatu. Edozein modutan, azken mende erditik aurrera, biztanleen beharakada hasi zen. Batetik, gazte euskaldunen emigrazioa gertatu zen. Baserritik kalera jaitsi ziren modu ohargarrian (Tolosara, Donostia...). Bestetik, jaiotze-tasaren jaitsiera. Horrek guztiak eragin nabarmena izan du herri horien bilakaeran.

Dislokazio demografikoa bai. Horrek eragiten du herri horietako hizkuntza-moldearen bilakaeran. Esan dugu dislokazio demografikoak hiru iturri nagusi dituela: emigrazioa, immigrazioa eta jaiotze-tasaren ahultzea. Hirurek eragin dute aztergai ditugun kasuetan, indar ezberdinez herriaren arabera, baina guztietan joera bertsuekin.

Datu demolinguistikoei begiratuz gero, berezko hazkundearen datuak begiratu besterik ez dago hirurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera hazkunde hori negatiboa dela ikusteko. Hau da, bikote gutxi sortu zen arnasguneetan eta (ezkondu ondoren) bertan finkatu. Urtetan ikusi den joera izan da. Horregatik, herri horietako asko biztanleak galduz joan zen, urteen joanean.

Emigrazioaren ondorioz, herri horiek txikituz, biztanleak galduz joan ziren. Bertako gazteak, lanbidea zela edo beste arrazoi batzuegatik, eskualdeko herri handiagoetara edo beste leku batzuetara joan izan dira bizitzera.

Azken urteetan, 1996tik aurrera bereziki, egoera horri buelta eman nahian, herri horietan etxebizitzak eraikitzeari ekin zitzaion, lehen unean bertako seme-alabek bertan jarrai zezaten bizitzen, beste herrietara joan behar izan gabe. Gerora, urbanizazio horrek, besteak beste, immigrazioa ekarri du herri horietara. Dislokazio demografikoaren hirugarren iturria, hain zuzen. Dislokazio demografikoaren eragina begi-bistakoa da aztergai ditugun herri horietan. Biztanleak irabazi ahala, euskaldunen dentsitatea galduz joan da. Batek gora egiten duenean, besteak behera egiten du. Biztanleen grafikoak eta grafiko demolinguistikoak konparatu besterik ez dago horretaz jabetzeko. Hori argiago ikusten da lau herriak banan-banan hartuz gero. Bi kasutan, biztanleriak nabarmen egiten du gora, urte jakin batzuetan, eta horrek sekulako eragina du euskaldunen dentsitatean eta hizkuntzaren etxeko erabileran. Beste bi kasutan, berriz, biztanleria nahiko egonkor dago, ez dago hazkunde bortitzik edota jaitsi ere egiten da. Kasu horietan, euskaldunen dentsitateak behera egiten badu ere, jaitsiera ez da aurreko kasuetan den bezain bortitza. Oso korrelazio nabarmena dagoela ikusten da, aldaketa demografikoen, euskaldunen dentsitatearen eta etxeko erabileraren artean.

Dislokazio demografiko horretan, urbanizazioak zerikusi zuzena izan du. Herri horietan hazkundera 1996tik aurrera eta, zehazkiago, 2001etik aurrera gertatzen da. Hain zuzen, etxebizitzaren gorakada gertatzen den garai bertsuan. Hamar urteko tartean (1996tik 2006ra) aztergai ditugun herri horietan 443 etxebizitza gehiago dago EUSTATEko datuen arabera. Urbanizazio horrek, ezinbestean izan behar du eragina herriko demografian eta bizimoldean. Oso da adierazgarria aldagai horien guttien urteetako bilakaeraren grafikoak ikustea. Hau da, biztanleena, etxebizitzena, euskaldunen dentsitatearena, ama-hizkuntzarena eta etxean erabiltzen den hizkuntzarena. Lehenengo bi grafikoetan, biztanleen eta etxebizitzaren alegia, goraka doazen hein berean, beste hirureta-koetan, hau da, euskaldunen dentsitatearenean, ama-hizkuntza euskara dutenenean eta etxean euskara erabiltzen dutenenean beheraka doaz. Korrelazio zuzena dago. Ez hori bakarrik: zenbat eta pikoagoa izan gorakada hori, orduan eta pikoagoa da beherakada ere. Gorakada mantendua edo orekatua, ozta-oztakoa denean, beherakada ere gehiago hurbiltzen da ezaugarri horietara.

Bi kasutan, etxebizitzaren gorakadak ez du espero zitekeen gorakadarik ekarri biztanlerian. Horrek badu arrazoi bat, herri horietako biztanle batek eman zidana. Hau da: etxe berri horiek bertako baserriarrek erosi zituzten, kale-etxeak dira. Inbertsio modura-edo hartuak. Hori horrela izanik, garbi dago etxe horietara ez datorrela biztanle berririk

---

**Urbanizazio berri  
horrek dislokazio  
soziokulturala  
ekarri du berekin  
arnasgune  
horietara.**



**Familiak eta ingurumen hurbilak lehen baino babesindar ahulagoa du transmisio horretan. Auzo-giroa, halaber, suntsituz joan da. Herri horietako askotan ez dago kale girorik. Hutsak daude. Harreman-sareak eten egin dira, ahuldu.**

eta horrek ez dakarrela jende-hazkunderik. Euskaldunen dentsitatean ere nabarmentzen da hori, herri horietan egonkorrago azaltzen da dentsitate hori; beherakada ez da hain bortitza. Kasu gehienetan, urbanizazio berri horrek immigrazioa areagotu du. Hori garbi ikusten da azken urteetako herri horietako berezko hazkundera eta migrazio-saldoak aztertuz gero. Berezko hazkunderak zertxobait gora egin du azken urteetan. Hala ere, azken hamarkadako migrazio-saldo positiboak erakusten du garbienik herri horietako bilakaera. Bestalde, bada beste datu esanguratsu bat hori guztia berresten duena. Hau da, biztanleriaren jaiolekua. Herri horietako biztanleria jaiolekuaren arabera aztertuz gero, EAEkoak ez direnak (beste probintzietan edota atzerrian jaiotakoak) nabarmen igotzen dira 2001etik aurrera.

Datu horiek guztiak kontuan izanik, zera ondoriozta genezake: urbanizazio berriak herri horietako urteetako bizimoldea zeharo aldatu duela. Egonkor samarra zuen bizi-giroa, astindu eta norabide berrietan jarri duela. Joera berriak sartu dituela, jende berriarekin batera. Batetik, kaletartu egin dira. Bestetik, erdararen sarbidea pauso sendoz ahalbiderratu dute.

Urbanizazio berri horrek dislokazio soziokulturala ekarri du berekin arnasgune horietara. Ondo gogoan dut, duela gutxi Orendainen pasieran nenbilela, 85 urteko aitona batekin hitz-aspertuan jarri eta nola hemen hizpide ditugun aldaketa soziokultural horiek, zein modu grafikoan adierazi zizkidan. Orendainen, beste arnasgune askotan bezala, azken urteetan hainbat etxe berri egin dira. Txalet moduko etxebizitzak beren itxitura txukun eta zainduarekin. Etxe horietan zein jarri ziren bizitzen galdetu nion, Orendaingo seme-alabak edo kanpokoak. Herrian lehen guztiak euskaldunak zirela esan zidan. Orain etxe berriak egin zituztela eta kanpotik ere etorriak zirela bizitzera. Batzuk erdaldunak zirela bazekiela, inoiz ingurutik pasatzean entzunak zituelako, baina ez dutela harreman-sarerik, ez dutela bizitza herrian egiten. Lanera kanpora ateratzen direla goizetik eta ilunabarrean bueltatzen direla etxera. Lotara etortzen direla, ez dutela herrian bizitzarik egiten. Ez omen dute harremanik herrian. Ba omen daki bai, batzuk herriko soziedadean apuntatu direla (erdaldunak badira zein eragin izango ote du horrek herriko soziedadean?), baina... lehen sikiera elizak biltzen zituela. Meza ondoren, denak biltzen zirela kontu kontari, asteko gertaerak errepatatu, biztanle berriak ezagutu etab., baina orain elizaren hori ere jaitsi omen da eta... Agure agurgarri horrek ez du seguruenik arnasguneei buruzko teoriarik ezagutuko, baina argi eta garbi jabetzen da, bere arnasgunetxoan zer aldaketa soziolinguistiko eta soziokultural gertatzen ari diren. Herritik

ateratzean, buelta eman eta herriko sarreran, belazean, kartel handi bat ikus daiteke, beste 12 etxebizitza berri eraiki behar dituztela adieraziz.

Antzeko egoera deskriba genezake arnagune gehienetan. Urbanizazio berri horrek hizkuntzen jarduera-moldaeran eragindako aldaketaz gain, edota hizkuntzari lotuta, aldaketa sozikultural sakona ekarri du. Etnokultura oso baten aldaketa, hain zuzen. Urteetan hizkuntzarekin batera, hizkuntza horren legamiaz kultura oso bat eratu eta transmititu da belaunez belaun, jarraikortasuna emanez eta, era berean, eguneratuz eta birsortuz. Transmisio horrek, indarra galdu du, eten egin da, mehartu gutxienik. Familiak eta ingurumen hurbilak lehen baino babes-indar ahulagoa du transmisio horretan. Auzo-giroa, halaber, suntsituz joan da. Herri horietako askotan ez dago kale girorik. Hutsak daude. Harreman-sareak eten egin dira, ahuldu. Etxe berrietako itxiturak, zuhaixka zainduz hesituak, kaletartze-prozesua areagotzeaz gain, bakoitzak berean ixteko joeraren irudia islatzen du. Hizkuntzaren eta berari datxekion etnokulturaren transmisioan etenak nabariak dira, mehartzea begibistakoa da. Kulturalki autorregulatzeko indar gutxiago daukate egun arnagune horiek. Sormen kulturalerako beharrezkoak diren adabakiak, sareak, trakestuago daude.

Bizimolde berriak ekarritako etenak ditugu dislokazio sozialaren beste ataletako bat. Gizarte berrian, bere ordain-sari sisteman, inoiz baino beharrezkoagoa egiten da gaztelaniaren eta beste hizkuntzen, batik bat ingelesaren, ezagutza eta erabilera. Gizartean aurrera egingo bada, euskara ez diren beste hizkuntza horiekiko kontaktua eta harremana inoiz baino beharrezkoagoa egiten da. Hainbat harreman-saretan ezinbestekoa gertatzen da euskara ez den beste hizkuntza batean jardun beharra eta, apurka-apurka, horiek egiten dira nagusi. Ez bakarrik harreman-sare horretan, baizik eta gizartean oro har duen indarra kontuan izanik, oharkabean, beste harreman-sareetara hedatzen joaten da.

Dislokazio kulturala. Aurreko lerroetan aipatu dugu, etnokultura oso baten gainbehera gertatzen ari dela gure arnaguneetan. Mendeetan jaso, birsortu eta emari izan den hizkuntzan eta kultura oso baten transmisioan begi-bistakoak dira etenak. Euskara eta bere kultura "humus" jakin batean erne izan dira, bizimolde askotarikoan baina sustrai sako-nekoan eta enbor berekoan. Hizkuntzak eta bertako kulturak kanpotik zetozen berrikuntzak digeritu eta bere egiteko gai ziren, indarra zuten. Egokitzen jakin izan du. Era berean, berera hurbiltzen zirenak euskalduntzeko eta bere kulturaren txertatzeko indarra zuen. Zenbat herri txikitik ez ote da gertatu, edonondik etorritakoak ere bertara bizitzera, denbora tarte nahiko laburrean bertako euskalkia ikasi eta herriko et-

---

**Dislokazio kulturala bete-betean gertatzen ari da gure arnaguneetan. Zein da herri horietako gizajendearen, gazteen eta haurren kultura-kontsumoaren hizkuntza? Zein iturritatik edaten ari dira? Zein dira kulturalki elementu sozializatzaileak? Noraino dago indarrean herri horiek gaurdaino oratuz joan den kulturaren transmisioa?**

**Ikasle horien erreferentzia kulturalak, euskara ez diren beste hizkuntzetan oratutakoak dira. Gaztelaniaren kultura eta kultura anglosaxoian nagusiki. Euskarazko kulturaren emaritik bezainbat edo gehiago elikatzen ari dira beste kultura horietako iturrietatik.**

nokulturaren txertatzea. Gaurko arnasguneek ba al dute biztanle berriak bereganatzeko adinako indarririk? Edota, aipatu ditugun aldaketa demografikoek (jende andana kolpean etortzea dislokazio demografiko bortitza sortuz, eta ez apurka-apurka txertatze hori errazago egiteko), sozialek (indibidualizazio prozesuak, harreman-sareen mehartzea etab. interakzio sozialek gutxituz eta, ondorioz, herriko bizimoldean txertatzeko aukerak murriztuz), geroxeago aztertuko ditugun aldaketa kulturek, eta abarrek, ez ote dute urritu erdal giroko etorkinak euskal giora egokitzeko eta hor txertatzeko indar hori? Hizkuntza-komunitatea zenbat eta trinkoagoa izan, orduan eta erakarpen-indar handiagoa izango du. Noraino ez da gertatzen etorri berriek ezartzea beraiek dakarten hizkuntza eta bizimodu hiritartua arnasgune horietan? Noraino egokitzen da etorkin hori arnasgunean aurkitutakora, edota besteak egokitu beharrean izaten dira hizkuntza eta bizimolde berrira? Batzuk elebarrak dira (badakigu zein hizkuntzatan), beste guztiak elebidunak. Norantz bideratuko ote da egokitze-prozesu hori?

Dislokazio kulturala bete-betean gertatzen ari da gure arnasguneetan. Zein da herri horietako gizajendearen, gazteen eta haurren kultura-kontsumoaren hizkuntza? Zein iturrietatik edaten ari dira? Zein dira kulturalki elementu sozializataileak? Noraino dago indarrean herri horiek gaurdaino oratuz joan den kulturaren transmisioa? Neurri batean erantzun diegu galdera horiei edo gutxienik iradoki ditugu haien erantzunak.

Ikusi dugu aztergai ditugun gela-argazki guztietan, komunikazio alorra dela modu bortitzenean jasaten ari dena mintzaldaketa. Ikusi dugu, halaber, ikasle multzoari egindako kultura-kontsumoari buruzko galdeketa, zein diren beraien lehentasunak, zer hizkuntza nagusitzen den kontsumo horretan, zer eduki etnokultural digeritzen dituzten, zein diren beraien kultura elikatze iturriak. Badakigu jakin, edozein kulturaren geroan, giltzarri dela hedabideen egitekoa eta haien zeregina. Euskarazko ekoizpenen kontsumo ahul horren zergatiak aztertzea ezinbestekoa izango da. Norbaitek esan dezake eskaintzaren murriztean eta kalitate eskasean dagoela euskarazko ekoizpenei bizkar ematearen arrazoi nagusia. Partez, agian, arrazoi izan dezake. Baina badira hori, guztiz behintzat, horrela ez dela esateko zantzuak.

Globalizazioa, modernizazioa, gizarte molde berriaren ezaugarriak bete-betean, hirietara bezainbat, sartu dira gure arnasguneetara. Alde horretatik ez dago ez ghettorik, ez “Gipuzkoa profunda” rik, ez bakarrik dagoen giza multzorik. Lurralde-antolamenduaren bilakaerak, bide-sareen berritzeak, eta abarrek hiriaren luzakin, hiriaren auzo erre-

sidentzial, atsedeneku, bilakatu ditu, bere ondorio guztiekin, herrixka horiek. Mundura konektaturik daude (gogoratu ikertu ditugun lau herrietako ikasleen etxeetan %91k duela Internetarako lotura), beste asko baino gehiago gainera. Galdeketa egin genuen garai berean, 2011ko maiatzean, EUSTATen arabera, informazioaren gizarteari buruzko inkestan, EAeko %57k zuen Internet, seme-alabak dituzten kasuetan %81,2k; Gipuzkoan %58,2k orokorrean.

Arnagune horietako ikasleek gaztelaniaz ikusten dute, hein handiengan, telebista. Bideoak, filmak %83k gaztelaniaz ikusten ditu. Egunkari irakurrienak gaztelaniaz daude. Irratia musika entzuteko erabiltzen dute batik bat (*Euskadi Gaztea*). Musika-CDak, DVDak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez entzuten dituzte. Interneten dabilzanetan, gaztelania gehiago erabiltzen dute. Oro har, beraien kontsumo kulturalaren hizkuntza gaztelania da nagusiki.

Ikasle horien erreferentzia kulturalak, euskara ez diren beste hizkuntzetan oratutakoak dira. Gaztelaniaren kulturaren eta kultura anglosaxoian nagusiki. Euskarazko kulturaren emaritik bezainbat edo gehiago elikatzen ari dira beste kultura horietako iturrietatik. Fenomemo berri horiek areagotzera datoz bertako etnokulturaren transmisioan hizpide izan ditugun eten-urratze eta ahulguneak. Dislokazio kultural hori gaztelaniaren eta, hein batean, ingelesaren, indargarri bilakatzen ari da, euskaraz oratzen den kulturaren bizkarretik. Nolatan egingo da euskal komunitate horretan autorregulazio kulturalik, gure kontsumo kulturala, gure mundu erreferentziala, beste hizkuntzetan egiten den kulturetan, batik bat horietan, elikatzen bada? Noiz arte iraun dezake euskaldun izaera horrek, elikatu ezean? Gogora datorkit, honen harira, Xabier Lete poeta handiak *Argiari* eskainitako elkarrizketa bateko pasartea:

*“euskalduna naiz sortzez eta nire inguruan dena euskaraz izan da. Alde horretatik euskaltasunaren sustraiak hor ditut. Gero, nire euskaltasun hori urteetan landu egin dut, irakurketarekin, solasarekin... badut ezagutza esateko ni euskalduna naizela.”* (Argia. Xabier Leteren omenezko ekitaldirako argitalpen berezia. 2010:7)

*Gero, nire euskaltasun hori urteetan landu egin dut, irakurketarekin, solasarekin...* Horixe da, hain zuzen, hizkuntza batean eraturako kulturak autorregulatzeko, indartzeko, etengabe berritzeko eta hurrengo belaunaldiei oparitzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa duen legamia. Jasotakoa landu ezean, mundu erreferentzial propioa landu ezean, ahultzen eta ihartzen joango da, beste ezipal bateko kimuak ordezkatu duen azkenean.

---

**Jasotakoa landu ezean, mundu erreferentzial propioa landu ezean, ahultzen eta ihartzen joango da, beste ezipal bateko kimuak ordezkatu duen azkenean.**

**Behera egin du euskara erabiltzen dutenen portzentajeak. Beherakada horren atzean azken urteotan hirigune erdaldunagotik gune euskaldunetara bizitzera joan direnen hizkuntza-ezaugarriak daude.**

Datu demolinguistikoeak, gela-argazkiek eta kultura-kontsumoaren galdeketen ondorioek arnasgune horietan dislokazio horiek bete-betean ari direla gertatzen adierazten digute. Hizkuntzazko nagusitasun-mol- daerak, horietan ikusten diren joerek, garbi adierazten digute arnasgune horietan gertatzen ari diren aldaketak eta aldaketa horien norabidea. Aldaketa horiek uste baino sustrai sakonagoak dituzte. Erro-errotik aldatzen ari dira orain artean nahiko egonkor egon diren bizimoldeak. Diglosiarik ezean, euskara eta bere etnokultura urtzen joan daitezke hizkuntza indartsuagoen kultura globalizatuetan. Kultura-kontsumo- aren datuek adierazten dute garbienik aldaketa horren norabidea.

Lan hau ia bukatuta zegoenean argitaratu dira V. Inkesta Sozio- linguistikoko emaitzak, eta Hizkuntzen Kale-Erabilaren VI. neurke- taren emaitzak. Biak ala biak 2011n eginak. Gure datuekin konparazioa egin dugu, eta datu horiek ez diren jaisten arren herriz herriko datue- tara, eta aldagai asko ere ez diren berdinak, orain arte aipagai izan di- tugun joerak ez direla ezezten iruditzen zaigu. Hala ere, datu zeha- tzaagoak beharko dira joera horiek berresten direla esateko.

Nahiz eta datuak ez diren guztiz konparagarriak, esandako arra- zoiengatik, zenbait ondorio pareka ditzakegu. Ondorio horiek bat datoz, oro har, lan honetan atera ditugun ondorioekin, arnasguneetan ikusitako joerekin. V. Inkesta Soziolinguistikoko ondorio nagusietako bat hau da:

*“Euskararen erabilerak gora egin du apurka-apurka EAEko hiru lurraldeetan eta lehenengo, bigarren eta hirugarren gune soziolinguistikoetan. Laugarrenean, aldiz, behera egin du euskara erabiltzen dutenen portzentajeak. Beherakada ho- rren atzean azken urteotan hirigune erdaldunagotik gune euskaldunetara bizi- tzerara joan direnen hizkuntza-ezaugarriak daude”.* (Eusko Jaurlaritzza, 2012:5)

Horixe da hain zuen, behin eta berriz, aztergai izan ditugun herri horietako datuek esaten digutena. Horrekin batera, badago beste joera bat guk ondorioztatu duguna eta V. Inkesta horretan berresten dena. Hau da, eremu formalean eusten zaio erabilerari, baina etxe-giroan be- heraka doa erabilera hori. Herriko elkarteetan, aisialdiko taldeetan... herri-giroan eutsi egiten zaio euskarari, baina etxean beherantz doa era- bilera hori. Horixe ondorioztatzen dute V. Inkestako emaitzek. Hau diote ateratako ondorio nagusietan:

*“euskararen erabileraren hazkundera handiagoa izan da eremu formalean eta apalagoa etxean, seme-alabekiko erabileran izan ezik, honek gora egiten jarraitzen baitu*

...

Horren ondorioz, gero eta txikiagoa da etxean euskara erabiltzen duten elebidunen proportzioa (%51). Salbuespena, hemen ere, seme-alabekiko erabileran dago (%86)". (Eusko Jaurlaritza, 2012:5-6)

Datu horiek gune soziolinguistiko guztietakoei badagozkie ere, 4. gune soziolinguistikoko datuak aztertuz gero, ondorio bera ateratzen da. Ere formalean gehiago erabiltzen da euskara etxe-giroan baino. Hori bera da aztergai izan ditugun gela-argazkietan ikusi den joera.

Zer adierazten du horrek guztiak? Garbi samar ondoriozta genezake etxe-giroa erdaldunduz doala arnaguneetan. Deskonpartimentazioaren eragina oso nabaria da ingurumen horretan. Aldiz, herri-giroak, herriko interakzio-sare zabalagoek, hobeto eutsi diote ordura arte jaun eta jabe izandako euskal giroari. Diagnosi horrek, berretsiz gero, ondorio praktikoa ateratzera eraman behar gintuzke.

## 9. ERRONKAK ETA EZTABAIDARAKO PUNTUAK

Lan honen xedea arnagune jakin batzuetako egoera aztertzea izan da. Dislokazio ezberdinen eragina noraino gertatzen ari den ikustea. Azken atal hau ez bazen ere lanaren xedeetan sartzen, honaino iritsi eta horiek aztertu ondoren, berehala sortzen da galdera: eta orain zer? Zer bide jorratu behar dira herri horietan euskara bizi-bizi mantentzeko eta belaunez belaun hizkuntzarekin batera eta hori ernetzen dueneko "humus" edo "habitat" kulturalarekin batera transmititu dadin?

Galderak errazagoak dira erantzunak baino. Hala ere, gutxienik, norabide batzuk iradokitzen ahaleginduko gara, laburki bada ere, eztabaidarako bide izan daitezten.

1. Ezer baino lehen, gertatzen ari denaren kontzientzia hartzea. Nekez emango diogu gaixotasunari sendabiderik, osasun betea dugula aitortzen badugu. Gertatzen ari diren aldaketak ikusteko gai ez bagara, nekez has ginteke diagnosi zehatzagoak egin eta neurriko sendabideak arakatzen.

2. Euskararen Aholku Batzordeak argitara emandako "Itun berritu baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena" liburuan lehentasuneko ildoak zehaztean, hainbat eginbide aipatzen dira, guk aurre-rago eta orain ere hizpide ditugunak. Besteak beste:

— Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnagune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez be-

**Garbi samar ondoriozta genezake etxe-giroa erdaldunduz doala arnaguneetan. Deskonpartimentazioaren eragina oso nabaria da ingurumen horretan.**



**Garrantzizkoa da transmisio naturalaren garrantziaz ohartaraztea.**

**Transmisio natural horretan auzo-bizitzak sekulako garrantzia du etxearekin batera. Auzotarren harreman-sareak indartu egin beharko dira, euskal interakzioz beteaz.**

launeko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko.

— Familia-transmisioa bermatzea...

— Euskarazko kultura kontsumoa indartzea...

— Hizkuntzaren teknologiak... sarerako euskarazko edukiak sortzea... (Euskararen Aholku Batzordea, 2009:50-51)

3. Arnasguneen bi ezaugarri nagusiak adi zaintzea eta, ahal den neurrian, horiek indartzea funtsezkoa da horretarako. Hau da, kontzentrazio demografikoa batetik eta hizkuntzaren transmisio naturala, bestetik. Dislokazio demografikoez eragiten dituzten aldaketak kontuan izanik, urbanizazio berriak planteatzerakoan oso kontuan hartzea horren eragina, hori modu orekatuan eta egituratuan egiteko eta hazteko eta herria biziberritzeko helburuekin batera hizkuntza-irizpideak ere kontuan hartzea, eta horiek ondo kudeatzeko bideak arakatzea.

4. Transmisio naturalaren garrantziaz ohartaraztea. Modu eragin-korra eta merkeena berau delako hizkuntza indarberritzeko xedeak aurrera eramateko. Etxearen babesa eta eredu izaera indartzea. Ezinbestekoa da gogoratzea, ikusi dugunez, gurasoek beraien artean dihardutenean nola jaisten den puntuazio hori, gurasoek duten eredu izaeraren erantzukizuna. Beraien arteko hizkuntzaren erabilera zaindu eta lantzea. Horren eraginaz jabetzea.

5. Transmisio natural horretan auzo-bizitzak sekulako garrantzia du etxearekin batera. Auzotarren harreman-sareak indartu egin beharko dira, euskal interakzioz beteaz. Udaletik eskaintzen diren zerbitzuak euskaraz izan daitezzen ziurtatuz, antolatzen diren ekimenetan hizkuntza-irizpideak garbi edukiz, ekimen horiek babestuz eta indartuz. Fishmanek dioen bezala, familia-giroan, auzo mailan eta gizarte-bizitzako elkar-giroan indar egin beharra dago, hizkuntza biziberritu nahi bada.

6. Etxean eta auzoan jaso duten hizkuntza bizi hori hizkuntza idatzia mundura, erregistro formalen lanketara, hizkuntza jasoaen baliabideetara eta kultura letratuaren esparrura bideratzen lagunduko behar die eskolak. Eskola, lehen ez bezala, arnasgune horien indargarri da orain, edo indargarri izan beharko luke.

Ez berak bakarrik, noski. Ezagunak dira eskolaren mugak. Hala ere, herri horietako eskolek harreman estua edukitzen dute bertako gurasoekin, herriko eragileekin. Horrek asko erraz dezake egitasmo bateratuak bideratzea, egoeraren hausnarketa parketatzea. Eskola

horietako ikasleak izan ditugunez aztergai eta jomuga, herriko beste eragileei garrantzia kendu gabe ere, eskolaren egitekoei buruz ari-tuko gara hurrengo lerroetan.

Herri horietan eskolatzen diren haur gehienak euskaraz mintzatzeko, beraien erregistroan, ez dute eragozpen handiegirik. Euskara informala, sen handikoa, jartotasuna, ahozkotasan landua eta fresko-tasuna badute. Hizkera ez-formalaren jabe dira, oro har, ikasle horiek.

Jarrerei dagokienez, zenbaitetan autopertzepzioarekin arazoak agertu ohi dira eta, ondorioz, zenbait jarrera berezi: txaubinismoa, gutxiagotasun konplexua, autogorrotoa eta antzekoak.

Zer da eskolak egin dezakeena dagokigun auzi horretan?

Ezer baino lehen esan, asko dela jada eskola horiek egiten du-tena, ikasle horien alfabetizazioa eta jakintza akademikoa ematear-ekin. Eskolak ezin ditzake etxearen eta auzoaren hutsuneak guztiz estali. Aspaldi erakutsi zigun Fishmanek (1990) “*eskolaren mugak hizkuntzak biziberritzeko saioan*” zein ziren. Ezin eska dakiok eman ezin duenik. Hala ere, eskuartean dugun auzi honetaz dihardugu-larik, eskolaren egitekoa funtsezkoa da hizkuntzaren indarberritze ahalegin horretan. Besteak beste honako arazoiengatik:

— Herri horiek, eskola horiek, hiztun komunitate zabalago baten parte dira. Komunitate horren ardatza, erdigunea. Hizkuntzak dituen arnasguneetako bat. Asko dute zaintzeko, zabaltzeko eta emateko.

— Azken hamarkadetan, eskola euskaraz izanagatik, gertatu diren aldaketek ez dute indartu arnasgune izaera hori. Aitzitik, trinkotasun hori ahultzea ekarri dute. Hizkuntzaren erreperto-rioan eta transmisioaren trinkotasunean galerak ari dira gerta-tzen. Halaber, etnokulturaren transmisioan, lanketan eta birsor-kuntzan arrakalak begi-bistakoak dira..

— Eskolak badu bere egitekoa horren guztiaren aurrean. Era-kunde garrantzitsua da. Besteak beste, eskolak gurasoekin duen harreman estuagatik, eskolako eragile ezberdinengan hausnar-keta bidera dezake, herriko beste eragileekin koordina daiteke, herriko egitasmoekiko lotura (EBPN, UEMA.) eta lankidetz-a gauza ditzake. Herriko/eskualdeko ekimenekiko osagarritasuna eta koordinazioa bideratu ditzake.

— Behatoki ezin hobea da dauden joera eta gertatzen ari diren aldaketak aztertzeko. Eskura ditu egoeraren diagnosi jarraitua egiteko tresnak eta bitartekoak: *Branka*, *mintzagrama*, *gela-argazkia* eta erabilera bera neurtzeko aplikazioak.

---

**Erakunde garrantzitsua da. Besteak beste, eskolak gurasoekin duen harreman estuagatik, eskolako eragile ezberdinengan hausnarketa bidera dezake, herriko beste eragileekin koordina daiteke, herriko egitasmoekiko lotura (EBPN, UEMA.) eta lankidetz-a gauza ditzake. Herriko/ eskualdeko ekimenekiko osagarritasuna eta koordinazioa bideratu ditzake.**

---

**Euskal  
etnokulturaren  
transmisioa  
indartzeko  
ekimenak  
bideratzea.**

Aipatutakoak kontuan, lan-ildo batzuen zertzeladak iradoki ditzakegu. Besteak beste honakoak:

— Eskolaren egiteko nagusia euskal eleaniztunak garatzea da. Hiztun jantziak, osoak. Alegia, tokiko euskara estandarra menderatzen dutenak eta edozein diziplinatan ari direla ere, euskaraz trebe aritzeko gauza direnak, euskal literatura eta kultura ezagutzeaz gain, gozatzen dakitenak. Euskara jaso, landua izango duten ikasleak lortzea. Hizkuntza-kalitatea zaindu eta areagotzea. Hizkuntza-errepertorioa eta erregistro ezberdinak ezagutu eta erabiltzeko neurriak hartzea.

— Hizkuntza eta bere etnokulturaren transmisioa ziurtatzeko eta sakontzeko bideak urratzea, herriko beste eragileekin batera. Eragile izatea herriko beste eragileekin koordinatuz eta elkarlana bideratuz, herriko hizkera zaintze lanean, euskal hedabideen sustapenean eta zabalkundeetan, herriko kultura-transmisiorako bideak eraikiz. Euskal etnokulturaren transmisioa indartzeko ekimenak bideratzea. Fito Rodriguezek dioen bezala:

*“hizkuntza bat kode hutsa baino gehiago baita eta gainera, aurrez ikusi dugun bezala, hizkuntzen bizirautearen oinarritzko elementua identifikazio sozio-kulturala da” (Rodriguez, 1998:105)*

Egiteko hori ez dagokio eskolari bakarrik, baina eskolari ere bai.

Hizkuntza-funtzioak edota euskararen gizarte-ikuspegia lantzea, ikertzea eta ulertaraztea. Azterketa eta hausnarketa soziolinguistiko oinarritzkoak lantzea. Hiztun kontzienteagoak izaten laguntzea. “Konplexuak” gainditu, autopertzepzio errealista landu eta identitate euskalduna eta talde-sentimendua indartzea.

“Naturalki” jaso duten hori baloratzen ikastea. Sakontzea eta aberastea. Haur eta gazte horiek duten potentzial hori “zabaltzea”, “trukatzea”. Beste ingurukoekin harreman-sareak eraikitzea. Beste eskolekiko trukea ahalbideratzea. Euskalduntzen ari direnek izan dezaten aukera, euskaraz bizi diren herrietako errealtateak ezagutzuz, beraien ezagutza eta erabilera areagotzeko.

7. Arnasgune horietan badira hainbat alor aurreko horiekin guztiekin lotura dutenak, baina berariaz kontuan hartu eta horiekin batera sustatu beharrekoak.

— Hizpide izan dugu euskarazko ekoizpen kulturalak sortu eta haietaz baliatzeak duen garrantzia, horien bidez elikatzen delako

gure autorregulazio soziokulturalerako ahalmena. Mundu erreferentzial propioa landu beharko da. Horretan, eskaintza handitu eta kalitatez hornitzeaz gain, bere kontsumoa eta erabilera sustatu beharko dira. Ahozko ekoizpenak, idatzizkoak, ikus-entzunezkoak eta baliabide digitalak zaindu beharko dira, eta horien promozio-lana egin. Emozio bertsuak, sentipen bertsuak, erreferentzia-mundu bertsuak partekatuz eraikitzen delako sormen kulturalerako gaitasuna eta gozamenerako ahalmena. Emozio eta bizipen partekatu horiek baitira hiztun-komunitatearen harreman-sareak ehuntzen dituztenak. Hor lantzen dira gerora, behin eta berriz, erreproduzitzeko beharrezkoak diren sentipenak.

— Kirolean, aisialdian, euskarazko jardueren eskaintza ezinbestekoa da. Eskolak egiten duenaren osagarri eta indargarri izan behar du eskaintza horrek. Hor pasatzen ditu gazteak ordu asko eta asko, eta hor eratzen ditu bere harreman-sareak. Horiek euskaraz eratzeko eta euskaraz indartzeko sekulako eragin biderkatzailea du. Hor markatzen dira sarridan harreman-sare horien hizkuntza-erabilera, ohiturak eta joerak. Hori berariaz zaintzea oso da garrantzitsua.

Jardun-gune guztiek dute beren garrantzia. Ikusi dugu guztietan eragin beharko dela, osagarritasuna bilatuz. Batean egiten denak ez dezala bestea indargabetu. Lehentasunak ezarri eta horiek egikaritu egin behar dira.

## AZKEN OHARRA

Aztergai izan ditugun arnasguneetan joera jakin batzuk nagusitzen ari direla ikusi dugu. Lehen atalean aurkeztutako dislokazio ezberdinak nolatan eragiten ari diren aztertzen saiatu gara. Azken urteetan arnasgune horietan gertatu diren aldaketek –deskribatzen saiatu garenek– herri horietako bilakaera soziolinguistikoa eta sozio-kulturala neurri ohargarrian astindu dute. Lehen atalean deskribatu ditugun dislokazio horietako asko nola eragiten ari diren berrestea, baieztatzea, besterik ez dugu egin guk jasotako datuekin. Egungo egoeraren deskribapen xume honek jarraipena beharko luke. Batetik, joera horien zergatiak sakonago aztertzeke; bestetik, joera horiek denboran zehar zein norabide hartzen duten aztertzeke. Joera horien bilakaeraren jarraipena egiteko. Horretarako, eskura ditugun eta erabili ditugun bitartekoak lagungarri izan ditzakegu. Hemendik bospasei urtera berriro aztertu beharko genituzke herri ho-

---

**“Naturalki” jaso  
duten hori  
baloratzen  
ikastea.  
Sakontzea eta  
aberastea.**

**Mundu  
erreferentzial  
propioa landu  
beharko da.**

**Kirolean,  
aisialdian,  
euskarazko  
jardueren  
eskaintza  
ezinbestekoa da.**

rietako datu demolinguistikoak, maila bereko geletan gela-argazkiak egin, kultura-kontsumoari erreparatu eta herri horietako beste hainbat aldagai kontuan hartu. Horiek guztiek herri horien, arnasgune horien, bilakaerari jarraitzea ahalbideratuko ligukete. Bego eginkizun. ●

## **BIBLIOGRAFIA**

- AIZPURUA, J. eta BERRIO-OTXOA, K. (2004): "Euskal herriko hizkuntza egoera: Statusa". Donostia. Graduondoko HIZNET ikastaroko materiala.
- ARBELAITZ, L. (2010): "Xabier Leteri elkarrizkera". In ARGIA aldizkariko argitalpen berezia Xabier Leteren omenezko ekitaldirako. 2010ko abendua. Elkarrizketa sarean ere irakur daiteke: <http://www.argia.com/astekaria/docs/2257/pdf/23-30.pdf>
- ERRIONDO, L.; GARAGORRI, X. eta ISASI, X. (1998): *Hezkuntzaren normalkuntza*. Donostia: UEU
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA, (2009): *Itun berri baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena*. Gasteiz: Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzak.
- EUSKO JAURLARITZA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBU-RUORDETZA (2012): "Euskal Autonomia Erkidegoa. V. Inkesta soziolinguistikoaren txostena". [http://www.erabili.com/zer\\_berri/berriak/dokumentuak/2012/V\\_Inkesta\\_Soziolinguistikoa\\_dossierra.pdf](http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/dokumentuak/2012/V_Inkesta_Soziolinguistikoa_dossierra.pdf)
- FISHMAN, J. A. (1990): "Eskolaren Mugak Hizkuntzak Biziberritzeko Saioan". In *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1,181-188). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- HERNANDEZ, J. M. (2004): "Hizkuntza kulturaren bitarteko gisa. Antropologiaren ekarpenak". Donostia. Graduondoko HIZNET ikastaroko materiala.
- JAUSORO, N. eta BASTERRETXEIA J.I. (2004): "Euskara, gizartea eta komunikabideak". Donostia. Graduondoko HIZNET ikastaroko materiala.
- RODRIGUEZ, Fito. (1998): "Eskolaren ekarpena hizkuntza gutxituen normalizazio prozesuetan", in *Hik Hasi aldizkariaren 1998ko abenduko ale berezia*
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. "Txepetx" (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia.
- TORREALDAI, J. M. (1998): *El Libro negro del euskera*. Donostia: Ttarttalo.
- ZALBIDE, M. (2001): "Fishman-en HINBE edo RLS. Donostia. Graduondoko HIZNET ikastaroko materiala, orain *erabili.com*-en ere

eskuragarri.

[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1086087086](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1086087086)

- (2002): “Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?”, in *Ikastolen IX. jardunaldi pedagogikoak*. Donostia.
- (2008): “Arnasgunea: zenbait gogoeta”. Argitaratu gabea.
- (2008): “Ahuldutako hizkuntzaren gizartea”. *Eskola Hiztun Bila XVI. Jardunaldian aurkeztutakoa*. Leioa.
- (2009): “Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE-saioetan”, in *Udal-top*. Lasarte-Oria.
- (2010): *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: baliopien-saioa* Bilbao: Euskaltzaindia.

XALBADOR, Fernando Aire (1976): *Odolaren mintzoa*. Tolosa: Auspoa.

XAMAR, Juan Carlos Etxegoien. (2001): *Orekan. Herri eta Hizkuntzen ekologiak*. Iruñea: Pamiela.

## **OHARRAK**

1. Lan hau HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondoko sakontze-egitasmo gisa landutako lan zabalago baten laburpena da. Mikel Zalbideren zuzendaritzapean, 2011n amaitua.
2. Espazio fisikoa da, non euskaldunen kontzentrazio demografikoa handia izanik, elkarren ondoan bizi diren eta hizkuntzaren transmisioa modu naturalean gauzatzen den.
3. Arnasguneei buruzko dokumentazio zehatzagoa lantzeko M. Zalbideren artikulua eta lanetara joatea besterik ez dago.
4. Horretarako, EUSTATEko datuez gain, ikastetxeetan egindako gela-argazkiak, kultura-kontsumoari buruzko galdeketak, eta herriko beste hainbat ataletako datuak aztertuko ditugu.
5. Hizkuntzen arteko konpartimentazio soziofuntzional egonkorra da diglosia. Gaian sakontzeko ikus BAT aldizkariaren 79-80 zenbakia. 2001.
6. Hiztun-talde jakina bere eguneroko jarduera arruntean beti edo nagusiki A hizkuntza egitetik beti edo nagusiki B hizkuntza egitera pasatzen denean.
7. Herrien artean alde txikiak badaude ere, joera bera da guztietan.
8. *Ulibarri.info* aplikazioan ikastetxeek hizkuntza-diagnosia egiteko eskura dituzten tresnetako bat da gela-argazkiarena.
9. *Ulibarri.info* webguneko gela-argazkiari buruzko azalpenetatik hartua.
10. BAT Aldizkariak artikulua zuri-beltzez argitaratzen dituenez, gris desberdinekin egingo dira bereizketa horiek.
11. Aipatzen diren harpidetza-datu guztiak 2011koak dira.